


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

GRADUA: ZUZENBIDEKO GRADUA

2020/2021 ikasturtea

ZIGOR ZUZENBIDEAK LGTBIFOBIA DELITUAK JASATEN DITUZTENEI EMATEN DIEN BABESAREN AZTERKETA KRITIKOA

Egilea: Beñat Gamboa Setuain

Zuzendaria: María Del Río Pereda

Bilbon, 2021eko otsailaren 15ean



Laburpena

Gorroto delitu kontzeptua, Zigor Kodeak, batez ere 22.4 eta 510. artikuluen bidez arautzen duena, komunikabide eta gizartean gero eta gehiago entzuten da. Gizartea diskriminazio horren atzean dauden aurreiritziak poliki-poliki atzean uzten ari dela dirudien arren, Espainian gorroto delituak burutzen jarraitzen direla frogatzen dute behatoki eta elkarte ezberdinek. Beraz, lan honetan zehar gertakari horiek jasaten dituzten pertsonen, batez ere LGTBI+ kolektiboari, Zigor Zuzenbideak ematen dien babesa aztertuko dut, orientazio eta identitate sexualaren aurkako kasuetan oinarrituz. Horretarako, ez naiz Zigor Kode edo jurisprudenziak gorroto delitu eta diskurtsoarekin amaitzeko duen papera aztertzeraz mugatuko. Horrez gain, LGTBIfobia gertakari buruzko datuen inguruan hausnartu, sexu-joera eta -identitate kontzeptuek zerri erreferentzia egiten dieten azaldu eta LGTBI+ kolektiboak egun duen babesa lortzeko elkarteek izandako pisua ere ikertuko dut.

Hitz gakoak: gorroto delitu, gorroto diskurtso, LGTBI+ kolektiboa, orientazio eta identitate sexuala

Abstract

The concept “hate crime”, which is mainly regulated in the articles 22.4 and 510 of the Spanish Criminal Code, is gaining importance in media and society. Although it may seem that society is slowly leaving behind the prejudices that lead to this kind of discriminations, several observatories and associations prove that hate crimes are still committed in Spain. In this work, I will study the protection given by the Criminal Code to the people suffering these incidents, especially to the LGTBI+ collective, basing my analysis on the cases against sexual orientation and gender identity. For this purpose, I will not only analyze the role of the Criminal Code and jurisprudence in eradicating hate crime and hate speech, but also reflect on the available data about incidents related to LGTBIphobia, explain the meaning of the concepts sexual tendencies and sexual identity, and study the importance of the associations in gaining the protection that the LGTBI+ collective has nowadays.

Key words: hate crime, hate speech, LGTBI+ collective, sexual orientation and gender identity

Laburduren aurkibidea

LGTBI+	Lesbiana, gay, trans, bisexual, intersexual eta beste batzuk.
ECRI	Comisión europea contra el racismo y la intolerancia.
FRA	European Union Agency for Fundamental Rights.
FELGTB	Federación Estatal de Lesbianas, Gais, Trans y Bisexuales.
FAGC	Front d'Alliberament Gai de Catalunya
OMS	Osasunaren Mundu Erakundea

Aurkibidea

1. Sarrera	5
2. Gorroto delituak.....	6
2.1. Gorroto delitua zentzu hertsian, <i>Hate crime</i>	7
2.2. Gorroto diskurtsoa, <i>Hate speech</i>	10
2.2.1. Gorroto diskurtsoa eta adierazpen askatasuna Konstituzio Auzitegiaren arabera.....	11
2.2.2. Gorroto diskurtsoa Zigor Kodean	12
3. Gorroto delituen azterketa kuantitatiboa eta horri buruzko hausnarketa: bereziki orientazio eta identitate sexualean oinarrituz.....	20
4. Orientazio eta identitate sexualaren kontrako gorroto delituen arauketaren hastapenak	29
5. Orientazio eta identitate sexual egoera pertsonalen esanahia	39
6. Orientazio eta identitate sexualaren aurkako gorroto delituei buruzko jurisprudentzia.....	44
6.1. Zigor Kodeko 22.4 artikuluari buruzko jurisprudentzia laburra	45
6.1.1. Beharrezkoa al da subjektu pasiboaren egoera pertsonala frogatzea? ..	46
6.2. Zigor Kodeko 510. artikularen jurisprudentzia laburra.....	49
7. Ondorioak.....	52
8. Bibliografia.....	55
9. Legeria, epaiak eta bestelakoak	61

1. Sarrera

Azkenaldian, askotan entzuten dira komunikabideetan kolektibo ezberdinek jasandako gorroto delitu edo *hate crime*, kasuak. 2013. urteaz geroztik Barne Arazoetako Ministerioak aurkeztutako txostenei esker horiei buruzko datuak ezagutzeko aukera ere badago, zeintzuen arabera diskriminazio gertaera gehienak arrazaren, etorkinen, ideologiaren, edo orientazio edo identitate sexualaren kontrakoak diren (Ministerio del Interior, 2019).

Zigor Kodea 1995. urtean hasi zen delitu horiek arautzen, egungo 22.4, 510. eta 510.bis artikuluen bidez, horretarako, gorroto delituak zentzu hertsian tipifikatzen dituen astungarri orokor eta gorroto diskurtsoa zigortzen duten tipoak erabiliz, hurrenez hurren. Delitu horiek egoera pertsonal ezberdinenganako, hala nola ideologia, erlijio, arraza, sexu-joera edo -identitatearenganako, aurreiritzi edo diskriminazioarengatik burutzen dira (OSCE ODIHR, 2020)

Lan honetan, Zigor Zuzenbideak aurrez aipatutako artikuluen bidez LGTBI+ kolektiboa *hate crime*-ngandik zein eratan babesten duen aztertuko dut. Baina Zigor Kodearen arauketa edo jurisprudentzia bakarrik aztertzeraz mugatu ordez orientazio eta identitate sexualaren kontrako delituen irudi zabala eman nahi izan dut. Izan ere, egun Zigor Kodeak LGTBIfobia delituak jasaten dituztenei babesa ematen dien arren, duela urte batzuk pertsona horiek ziren bezalakoak izateagatik jazartzen zituen legeak. Aldaketa hori erdiesteko aktibista eta elkarteek egindako lana funtsezkoa izan da (Martín Aragón, 2019: 14), eta ez dut aberastasun hori alde batera utzi nahi izan, gaiaren berezitasuna agerian utziz. Arian ere, ez luke zentzurik izango sexu-joera eta -identitatearen kontrako *hate crime*-a beste edozein delitu aztertuko banu bezala ikertzeak, ezta LGTBIfobia delituei buruz aurkeztutako datu estatistikoek erakusten uzten duten errealitatea eta era horretako delituek gizartean duten eragina ahazteak ere.

Hori guztia lanean jaso ahal izateko, lehenik eta behin gorroto delitu terminoaren esanahia eta haren arauketa aztertuko dut. Jarraian, *hate crime*-n ikerketa kuantitatiboa egingo dut, datuen inguruan hausnartuz, Zigor Zuzenbidearen papera delitu horiekin amaitzeko nahikoa ez dela agerian geratuko delarik. Horretarako, Espainiako *hate crime* kopurua ezagutu nahian, LGTBI+ kolektiboan zentratuz, Barne Arazoetako

Ministerioaren Espainiako “gorroto delituen”¹ eboluzioari buruzko txostenak, eta beste elkarte batzuek gertakari horien inguruan aurkeztutako datuak erabiliko ditut.

Ondoren, orientazio eta identitate sexualaren kontrako aurreiritzien ondorioz bizi den eta gaur egun arte sufritu izan dutenen egoera latza ezagutzera eman eta hori aldatzeko egindako bidea ere aurkeztuko dut, egungo legediaren zergatiak ulertzeko baliagarria baita. Hau da, ordenamendu eta gizartearen aldaketa erakutsi, eta aldaketa horiek lortzeko elkarte eta mugimenduek izandako papera azalduko da lanean.

Halaber, errekonozimenduak duen garrantzia azpimarratuz, Zigor Kodeak LGTBI+ kolektiboa gorroto delituengandik babesteko erabiltzen dituen egoera pertsonalen esanahiak eta zerri erreferentzia egiten dieten aztertuko dut. Azkenik, kontzeptu horiek argi izan eta gero, jurisprudentziaren azterketa laburra egingo dut, aipatutako kodeko 22.4 eta 510. artikulua zein eratan aplikatzen diren ikusteko.

Baina gaia sakontzen hasi baino lehen lan hau burutzeko laguntza eman didaten Maria del Rio Pereda irakasleari eta ondorengo elkarteei eskerrak ematea gustatuko litzaidake: Gamá LGTB, Segoeintiende LGTBH eta Arcópoliri. Izan ere, haien aholku eta adierazpenak oso lagungarriak izan zaizkit konplexutasun handia duen gai honen ertzak aztertzeko.

2. Gorroto delituak

Ordenamenduari dagokionez, gorroto delituen, *hate crime*-n, barnean, hauek zentzu zabalean ulertuz, bi atal bereiz daitezke: batetik, *hate crime*, gorroto delitua zentzu hertsian, Zigor Kodeko 22.4 artikuluko astungarriaren bidez zigortzen dena; eta, bestetik, gorroto diskurtsoa edo *hate speech*, Zigor Kodeko 510.² eta kode bereko 510 bis³ artikuluetan tipifikatuta dagoena (Landa Gorostiza, 2018: 17-25)⁴.

¹ Kakotx artean idazten ditut gorroto delitu hitzak, lan honetako hirugarren atalean ikusiko den lez, kontzeptu hori erabiliz gorroto gertakariaren datuak ematen dituelako.

² Zigor Kodeko 510. artikulua 1995ko Zigor Kodea indarrean sartu zenean barneratu zen.

³ Zigor Kodearen 1/2015 erreformarekin atxikitu zen 510 bis artikulua.

⁴ Nahiz eta iturri ezberdinak hartu ditudan lan hau egiteko LANDA GOROSTIZAren Los Delitos de Odio liburua askotan aipatzen dut, gai honetan bereziki funtsezkoa dela iruditzen zait eta.

Banaketa horrek Europar Batasunaren 2008/913/JAI Esparru Erabakiaren⁵ funtsa kontuan hartzen du, arrazoi arrazista eta xenofoboek bultzatutako gorroto diskurtso eta ekintzak zigortuz. Halaber, gaur egun, gizartean eta komunikabideetan gero eta gehiago barnebiltzen ari diren kontzeptuak dira (Landa Gorostiza, 2018: 23-25).

Bi termino horiek hobeto ulertu ahal izateko Zigor Kodeko 22.4 eta 510. artikulua banan-banan aztertzeari ekingo diot.

2.1. Gorroto delitua zentzu hertsian, *Hate crime*

Oso zaila da gorroto delituaren⁶ alderdi guztiak aintzat hartuko dituen definizio zehatz bat ematea, toki eta garai bakoitzean adiera ezberdinak izan ditzakeelako (Jacobs eta Potter, 1998: 11; Perry, 2001: 7-9). Horregatik, definizio ezberdinak eman izan dira, esaterako, WOLFE eta COPELAND gizarte zientzialariek, 1994an, PERRY-k (2001: 9) aipatua, gorroto delituak ondorengo eran definitzen dituzte:

<<Orokorrean gizartearen gehiengoak baloratzen ez dituen taldeenganako indarkeria, zeintzuek beste esparru batzuetan diskriminazioa jasaten duten eta injustizia sozial, politiko eta ekonomikoa konpontzeko aukerarik ez duten.>>⁷

Adierazpen horrek nahita egindako baztertutako talde jakin bati zuzendutako egintza bortitz bati egiten dio erreferentzia, gizartearen gehiengoan barneratuta dagoen aurreiritzietan⁸ oinarrituta (Hall, 2013: 2). Dena den, PERRY-ren arabera (2001: 9) definizio horrek gorroto delituak jasaten dituzten pertsona gehienak beste era batzuetan ere baztertuak daudela aitortu arren, ez du adierazten delitu horrek baztertze hori bultzatzen duenik.

Hori dela eta, PERRY-k dioen bezala, ez da ahaztu behar, *hate crime*-ak zapalkuntza bideak direla, gizartean dauden hierarkiak finkatu eta berrestea bilatzen

⁵ Lan honetan zehar zenbaitetan erreferentzia egingo diot Kontseiluaren 2008/913/JAI Esparru Erabakiari, izan ere, Zigor Kodearen 1/2015 erreforma egin zenean Kode horretako 510. artikulua aldatzeko arrazoiak Kontseiluaren 2008/913/JAI Esparru Erabakia eta Konstituzio Auzitegiaren azaroaren 7ko 235/2007 epaia izan ziren (Landa Gorostiza, 2018: 49).

⁶ Atal honetan gorroto delitua diodanean, hauen zentzu hertsian egingo diot erreferentzia.

⁷ Nire itzulpena, jatorrizkotik abiatuta: <<*Violence directed towards groups of people who generally are not valued by the majority society, who suffer discrimination in other arenas, and who do not have full access to remedy social, political and economic injustice.*>>.

⁸ Aurreiritzia litzateke talde zehatz batekiko intolerantzia edo iritzi negatiboa, baita harekiko gorrotoa ere (OSCE ODIHR, 2009: 15).

duinak. Era horretan, biktima parte den kolektiboaren menpekotasuna eta delitua burutzen duenaren nagusitasuna, edo ustezko nagusitasuna, birsortu nahi da. Izan ere, gorroto delituak larderia eta indarkeria ekintzak dira, gehienetan baztertuta dauden taldeei zuzenduta daudenak (Perry, 2001: 10). Hau da, gorroto delituak pertsona talde batzuei kalte egiten dieten ekintza kriminalak lirateke, Zigor Kodearen kontrakoak, aurreiritzietan oinarrituak eta aurrejuzguek bultzatuta aurrera eramaneak (OSCE ODIHR, 2020). Bertan astungarri honen izaera subjektiboa ikusten da, delitu egilearen erantzukizun kriminala handituko baita haren sentimendu diskriminatzailleak eragin duen delitua burutzeagatik (Estatuko Fiskaltza Nagusiaren maiatzaren 14ko 7/2019 Zirkularra).

Azken definizio horretatik ondoriozta daitekeen lez, bi elementu izan behar ditu *hate crime*-k, lehenengoa da burutu den ekintza delitu penal bat izan behar dela (Bayer eta Bárd, 2020: 23; OSCE ODIHR, 2020). Beste elementua zera da: burutu den ekintza aurreiritziak bultzatua edo motibatua izatea (OSCE ODIHR, 2020). Beste era batean esanda, delitugileak biktima aukeratzen du biktima talde zehatz batekoa, adibidez, LGTBI+ kolektibokoa, delako edo talde horretakoa dela dirudielako (OSCE ODIHR, 2009: 15). Beraz, delitu hauek ematen direnean delitu-egitatea, akusatuaren parte hartzea eta haren intenzionalitatea frogatu beharko da (Estatuko Fiskaltza Nagusiaren maiatzaren 14ko 7/2019 Zirkularra).

Gainera, delitu hauen bidez lortu nahi dena da biktima eta bera parte den taldea haien ezaugarriak direla eta beldurtzea, orokorrean, delitu arruntek baino kalte handiagoa sortuz. Izan ere, biktimaren aldatu ezin den identitatea erasotzen dutenez, harengan eta hura parte den taldearengan zaugarritasuna sortzen dute, eraso berbera egoera pertsonal hori duten gainerakoek ere jasan dezaketela adierazten baita (Ministerio del Interior, 2017: 21-26).

Laburbilduz, gorroto delitua aurreiritziak bultzatutako ekintza kriminal bat litzateke (Jacobs eta Potter, 1998: 11-16), baztertutako talde bati zuzendua eta bazterketa mantentzea eragiten duena.

Hate crime terminoa gure artean nahiko berria dela dirudien arren, ez da hala. Arean ere, 1960. urtetik aurrera diskriminazioarekin amaitu eta eskubide berdintasuna lortzeko garatu zen gorroto delitu kontzeptua, hala deitzen zitzairen arraza beltzeko pertsonak jasaten zituzten lintxamenduei. Urte batzuk beranduago Europara hedatu zen termino hori Estatu Batuetatik, Erresuma Batutik hasiz, nerabe beltz bat 1993. urtean

hil zutenean. *Hate crime* kontzeptua garatuz joan zen 2005eko Londreseko atentatuen ondoren pertsona batzuek sinesmen islamiarren aurka hartutako mendekuen ondorioz (Díaz López, 2012: 99-102). Terminologia hori Espainiara ere heldu eta 1995eko maiatzaren 13an Zigor Kodean diskriminazio arrazoiengatik astungarria barneratu zen (Díaz López, 2012: 36; Mir Puig, 2011: 639).

Harrezkero, zenbait aldaketa egon dira egun Zigor Kodeko 22.4 artikuluko astungarri orokorra, era guztietako delituetan aplika daitekeena (Díaz López, 2012: 36), ondorengo izanik:

<<Inguruabar astungarriak dira hurrengo hauek: Delitua burutzea arrazakeria nahiz zio antisemitengatik edo bereizkeriazko beste mota batengatik, baldin eta hori biktimaren ideologia, erlijio edo sinesmen, etnia, arraza, nazio, sexu, sexu-joera zein identitate sexual, genero arrazoi, gaixotasun edo elbarritasunari buruzkoa bada.>>⁹

Beraz, zigorra astundua izango da baldin eta delitua arrazoi diskriminatzaileetan oinarritzen bada (Landa Gorostiza, 2018a: 4). Hala ere, egun Zigor Kodeko 22.4 artikuluan dauden egoera pertsonal guztiak ez ziren 1995. urtean barneratuak izan, erreforma ezberdinen bidez tipo penalera atxikituak izan baitziren. Horrek, bostgarren atalean ikusiko den bezala, kolektibo batzuk artikuluen babes gabe egotea suposatu zuen, astungarria xenofobia kasuetara zuzenduta baitzegoen hasieran (Landa Gorostiza, 2018b: 119).

Atxikipen horiei esker, egun, artikulua babestutako kolektiboek ez dute ia mugarik. Dena den, harrigarria da, Barne Arazoetako Ministerioak egiten dituen gorroto delituei buruzko txostenek erakusten duten lez, Espainian aporofobiak eragindako gorroto delituak egon arren, kolektibo horri zuzendutako diskriminazioa Zigor Kodeko 22.4 artikuluan barneratuta ez egotea (Landa Gorostiza, 2018b: 118). Aldiz, LGTBI+ kolektiboak, esaterako, orientazio eta identitate sexuala egoera pertsonalen bidez babesa jasotzen du, aurrerago egoera pertsonal horiek aztertzean ikusi ahal izango den bezala, nahiz eta ez den 1995. urtetik hala izan (Mir Puig, 2011: 640).

⁹ Itzulpena, jatorrizkotik abiatuta: <<*Son circunstancias agravantes: Cometer el delito por motivos racistas, antisemitas u otra clase de discriminación referente a la ideología, religión o creencias de la víctima, la etnia, raza o nación a la que pertenezca, su sexo, orientación o identidad sexual, razones de género, la enfermedad que padezca o su discapacidad.*>>.

Baina gaur egun edozein delitu aurrez aipatutako arrazoieta oinarritzen dela frogatzen bada, hots, astungarriak babesten dituen egoera pertsonalen baten kontrako aurreiritzi eta diskriminazioa izan bada delitua burutzeko arrazoia, (Landa Gorostiza, 2018b: 119), delitugileari astungarri honen bidez zigor handiago bat ezarriko litzaiokenez, eta orokorra izanik delitu guztietan aplika daitekeenez, Zigor Kodeak artikulu horrek aipatzen dituen taldeak babesten dituela esan daiteke.

2.2. Gorroto diskurtsoa, *Hate speech*

Gorroto delituak zentzu hertsian azaldu ondoren *hate crime*-n beste atala aztertuko dut, *hate speech*, hain zuzen ere. Gorroto diskurtsoa beste pertsona bat edo pertsona talde bat haren edo haien ezaugarriak direla eta iraintzen duen edozein adierazpen era litzateke (OSCE ODIHR, 2009: 15-16), hots, era ezberdinetan adierazia izan daiteke, idatziz edo ahoz, adibidez (Díaz López, 2012: 67).

Diskurtso hori intolerantzia oinarrituta egoten da eta xenofobia, tolerantzia-eza antisemitismoa, arrazakeria edo beste gorroto era batzuk justifikatu, bultzatu eta zabaltzen ditu (The Council of the European Communities, 1994: 106). Izan ere, gorroto diskurtsoak gizarte bateko taldeen arteko aurkakotasuna sortzea bilatzen du, kolektibo batzuk alde batera utziz maila baxuagoan kokatuz (Landa Gorostiza, 2018b: 58-60).

Talde minoritarioei zuzendu ohi zaie gorroto diskurtsoa (The Council of the European Communities, 1994: 106), eta batzuetan pertsona bakar bati bideratzen zaion arren, kaltea ez zaio horri bakarrik sortzen, kolektibo osoari baizik (Balaguer Callejón et al., 2007: 190).

Hate speech Europan oso finkatuta dagoen terminologia bada ere, diskurtso horren mugak ez daude beti hain argi, adierazpen askatasunarekin talka egiteko arriskua baitago. Arian ere, gorroto diskurtsoa adierazpen askatasunaren muga litzateke.

Mugetaz hitz egitean erreferentziatzat har daiteke Amerikar Auzitegiak 1919. urtean Holmes <<*Schenk vs USA*>> epaian adierazitakoa. Izan ere, epai horrek adierazpen askatasunetik kanpo utzi zituen gorrotoak bultzatuta eta gorrotoa sortzeko aditzera emandako diskurtsoak. Espainian, aldiz, Zigor Kodeko 510. artikulua arduratzen da mezu horiek alde batera uzteaz (Balaguer Callejón et al., 2007: 185-190).

Amerikar Auzitegi Gorenak bezala, Konstituzio Auzitegia ere Espainiar Konstituzioko 20. artikuluan aitortzen den eskubidearen mugak zehazteaz arduratu da. Horregatik, jarraian prozesu horretan garrantzia izan duen eta 510. artikuluekin lotura duen epai bat aztertuko dut.

2.2.1. Gorroto diskurtsoa eta adierazpen askatasuna Konstituzio Auzitegiaren arabera

Espainiako Konstituzio Auzitegiaren 2007ko azaroaren 7ko 235/2007 epaiak Zigor Kodeko 607.2 artikularen¹⁰ konstituzionaltasuna aztertu zuen. Epai horrek garrantzi handia izan zuen: batetik, adierazpen askatasunaren gutxieneko mugak ezartzeko irizpideak zehaztu zituelako, horri esker bereiztu daitekeelarik zer izango den penalki zigortua eta zer ez (Landa Gorostiza, 2018b: 50), eta, bestetik, genozidioaren apologiarekin zer ikusia duten delituak interpretatzeko orduan bide berri bat ezarri zuelako (Suárez Espino, 2008: 3).

Epai horrek, *hate speech* definitzeko orduan Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren Erdogdu, Gündüz eta Erbakan epaiak eta 1997ko urriaren 30eko Europako Kontseiluaren Ministro Batzordearen R(97)20 gomendioa aintzat hartzen dituenak (Díaz López, 2012: 66), gorroto diskurtsoa adierazpen askatasunean ez dela barneratzen adierazi zuen. Hau da, ezin da gorroto diskurtsoa adierazpen askatasunarekin justifikatu (KA azaroaren 7ko 235/2007 epaia).

Gorroto diskurtsoa burutzeko moduari dagokionez, Konstituzio Auzitegiaren arabera, delitua era zuzenean egina izan daiteke. Hala ere, zeharka ere burutu daiteke baldin eta: diskurtso horrek genozidioa bidezkoztat aurkezten badu berau errepikatze edo diskriminazio jarduerak burutzeko arriskua sor dezakeelarik, era zuzenean ez bada ere; diskurtsoak beste pertsona batzuk xenofobo edo arrazista bihurtzea bilatzen badu; edota hitz horiek gorrotoa sortzea eragiten badute diskriminazio jarduerak izateko arriskua ekarri. Beste era batean esanda, ekintza gorroto diskurtsoa dela kontsideratuko da gizartean kaltea sortzen duenean, kolektiboaren askatasuna arriskuan jarriz eta taldearen segurtasuna murriztuz, kalte hori diskurtsoa eraginkorra denean sortuko delarik (Landa Gorostiza, 2018b: 56-57).

¹⁰ Zigor Kodeko 607.2 artikulua horrek, edozein bide erabiliz, genozidioa ukatzen edo justifikatzen duen, edota praktika horiek sortzeko eginberak babesten dituzten erregimen edo erakundeak berrindartu nahi dituzten ideiak eta doktrina hedatzea zigortzen zuen.

Halaber, Konstituzio Auzitegiarentzat adierazpen askatasunaren muga gainditu ahal izateko ez da nahikoa estatuaren edo pertsona batzuen kontrako iritzia izatea, diskurtso horrek garrantzi konstituzionala duen eskubide edo ondasun juridiko bati kalte egin beharko baitio (Landa Gorostiza, 2018b: 52-53). Eta hori gertatu dela kontsideratuko da adierazpen iraingarrien bidez diskriminatu eta gutxiesteko asmoa dagoenean (KA azaroaren 7ko 235/2007 epaia).

Adierazpen askatasunaren gutxieneko mugak ezartzeaz gain, Konstituzio Auzitegiak Konstituzioaren aurkakotzat hartu zuen indarrean zegoen Zigor Kodeko 607.2 artikulua egiten zuen bezala, <<(…) *nieguen o* (...)>> erabiliz, genozidioa ukatzea debekatzea babesten zen ondasun juridikoa zehaztugabea izateagatik (Díaz López, 2012: 72), Espainiar Konstituzioko 20.1.a artikuluko adierazpen askatasunaren kontrakoa litzatekeelako. Arian ere, aipatutako Auzitegiaren arabera genozidioaren ukatze hutsa, delitu horien goraipatzerik edo hori egitera bultzatu gabe adierazpen askatasunaren barnean sartuko litzateke (Suárez Espino, 2008: 3). Genozidioa justifikatzea zigortzea, berriz, konstituzionala zela adierazi zen, beti ere epaiko irizpideak aintzat hartzen badira (Landa Gorostiza, 2018b: 51-58).

Epaia horretan adierazitakoa aintzat hartuz, 2015ean Zigor Kodean egin zen aldaketetako bat kodeko 510. artikulua arauketa berri bat ezartzea izan zen. Horri esker, aurrez kodeko 607.2 artikuluan zigortuta zeuden portaerak Zigor Kodeko 510. artikuluan barneratu ziren (Gascón Cuenca, 2015: 73-78).

2.2.2. Gorroto diskurtsoa Zigor Kodean

Gorroto diskurtsoak adierazpen askatasunarekin duen lotura ezagutu ondoren, *hate speech*-ek Zigor Kodean duen tokia zein den aztertuko dut. Berau Zigor Kodeko 510. eta 510 bis artikuluetan tipifikatuta dago, eta artikuluko horiek babesten dutena bereziki ahulak diren kolektiboen babes existentziala litzateke, ahulak ez diren kolektiboak ere babesten dituzten arren (Landa Gorostiza, 1999: 341).

Bereziki hitza erabiltzen dut, kolektibo minoritarioei gorroto diskurtsoak egin diezaiekeen kaltea umiliazio, indarkeria eta jazarpena jaso ez duten kolektiboak sor diezaiekena baino handiagoa delako. Izan ere, gorroto diskurtsoaren atzean pisu historiko handi bat dago, mespretxatzeko ohitura duen gizarte honek, esaterako, LGTBI+

kolektiboari zuzendutako *hate speech*-ari pertsona zisgenero heterosexualei bideratutako diskurtsoari baino sinesgarritasun handiagoa ematen dio eta, adierazpen horiek urteetan zehar jasandako diskriminazioa mantentzen lagunduz (De Pablo Serrano, 2019: 357).

Hortaz, esan liteke Zigor Kodeko 510. artikuluko ondasun juridiko babestua berdintasunerako eta diskriminatua ez izateko¹¹ oinarrizko eskubidea¹² dela, Espainiar Konstituzioko, berdintasuna aldarrikatzen duen, 14. artikuluko funtsa jasoz. Hots, bizitza edo osotasun fisikoa babesteaz gain kolektiboetako kideei beste edozein pertsonak izan ditzakeen eskubideak ez ukatzea bilatzen da, politikan parte hartzea edo osasun zerbitzuak jasotzeko eskubidea, esaterako (Landa Gorostiza, 2018b: 59-60).

Ondasun juridiko babestua ezagutu eta gero, subjektu pasiboa aztertzeari ekingo diot. 2015eko Erreformatik aurrera argi eta garbi ikus daiteke zein den arrisku abstraktuko delitu (Cerezo Mir, 2002: 47) honen subjektu pasiboa: talde bat, talde bateko pertsona batzuk edo talde horretako pertsona bat, Zigor Kodeko 510. artikulua berak adierazten duen bezala. Erreforma hori baino lehen ez zegoen hain argi pertsona indibidualak ere subjektu pasibo izan zitezkeenik. Hala ere, doktrinaren zati batek, adibidez, BERNAL DEL CASTILLOk, adierazi zuen artikulua idatzita zegoen eragatik ere uler zitekeela pertsona indibidualak ere subjektu pasiboak zirela, nahiz eta artikuluan hitzez hitz hori ez adierazi (Bernal del Castillo, 1998).

Zigor Kodeko 510. artikulua hainbat debeku penal aurreikusten ditu, bi multzotan bereiz daitezkeenak, alde batetik, gorrotoaren sustatze publiko larria, eta, bestetik, jokaera iraingarriak, delitu ez hain larriak liratekeenak. Lehenengoak Zigor Kodeko 510.1 artikulua arautzen ditu, bigarrenak, aldiz, kode bereko 510.2 artikulua. Oinarrizko tipoak urte bat eta lau urte bitarteko kartzela zigorra eta 6-12 hilabete bitarteko isuna ezartzea aurreikusten du, tipo arinduek, berriz, oro har eta salbuespenak salbu, sei hilabete eta bi urte bitarteko espetxe zigorra eta 6-12 hilabete bitarteko isuna. Bertan

¹¹ Berdintasunerako eskubidea Espainiar Konstituzioko 14. artikuluan jasotzen da, non espainiar guztiak legearen aurrean berdinak direla aitortzen den. Aldi berean, Konstituzioko 9.2 artikuluan berdintasun hori bermatzea botere publikoei dagokiela adierazten da, berau lortu ahal izateko oztopoak eraginez. Beraz, supostu berdinak berdin tratatu beharko dira, eta ezberdinak diren supostuei tratatu ezberdina emango zaie aipatutako berdintasun hori lortzeko (Balaguer Callejón et al., 2007: 85-87).

¹² Oinarrizko eskubideak: ordenamendu juridiko positiboak, batez ere Konstituzioak, babes handiarekin bermatzen dituen Giza Eskubideak lirateke (Pérez Luño, 2004). Eskubide horien babesa, Konstituzioaren 53.2 artikulua araberan, zuzenean eskatu daiteke lege batek garatu ez badu ere (Balaguer Callejón et al., 2007: 85).

ikus daiteke, legegileak proportzionaltasuna gordetzen duela, izan ere, gorrotoaren sustapena jokaera iraingarriak baino larriagozat hartzen du, larritasun hori kontuan hartuz zigor altuagoa ezarriz (Landa Gorostiza, 2018b: 64-65).

Zigor horien helburua kolektibo batzuei babesia ematea da, arean ere, 510.1 eta 510.2 artikuluek komunean daukate ondorengo taldeak eta talde horietako pertsonak babestu nahi dituztela delitua ondorengo arrazoiengatik egiten bada:

<<(…) talde baten, talde bateko zati baten edo, talde horretako kide izateagatik, pertsona baten aurka, arrazakeriarengatik nahiz zio antisemitengatik, edota talde nahiz pertsona horien ideologia, erlijio nahiz sinesmen, familia-egoera, etnia, arraza edo nazio, nazio-jatorri, sexu, sexu-joera, sexu-identitate, genero, gaixotasun edo desgaitasunarengatik egiten dutenean.>>¹³

Talde horietako batzuk Zigor Kodeari 2015. urtean egindako azken erreforman gehitu ziren, kode bereko 22.4 artikuluan bezalaxe, esaterako, identitate sexuala, bostgarren atalean aztertuko dena. Baina lehendabizi Zigor Kodeko 510. artikulua sakonago ikertzeari ekingo diot.

Zigor Kodeko 510.1.a artikuluan ondorengo terminoak azaltzen dira:

<<Jendaurrean gorrotoa, etsaigoa, bereizkeria edo indarkeria sustatu, bultzatu edo zirikatzen dutenei (...)>>¹⁴

Lehenik eta behin, jokaera publikoki burutzen denean zigortuko dela zehazten da, Kontseiluaren 2008/913/JAI Esparru Erabakiaren 1.1.a artikulua eskatzen duen bezala, adibidez, konferentzia edo mitin politiko batean (Aguilar García et al., 2015: 207). Ondoren, publikoki egindako zein jokaera zigortzen diren adierazten da. *Incitar* hitzak ekintza bat egitera indar handiarekin bultzatzea suposatzen du (RAE, 2014c), kasu honetan gorroto, diskriminazio, biolentzia eta liskarrak izatera bultzatzea. Aldiz, *fomentar* eta *promover* hitzek, sinonimoak direnek (RAE, 2014b), esan nahi dutena zera da: doloaren bidez beste pertsona batzuen borondatean eragitea babestutako taldeenganako jokaera batzuk sortuz, gorrotozkoak, diskriminaziozkoak eta

¹³ Itzulpena, jatorrizkotik abiatuta: <<(…) *contra un grupo, una parte del mismo, o contra una persona determinada por razón de su pertenencia a aquél, por motivos racistas, antisemitas u otros referentes a la ideología, religión o creencias, situación familiar, la pertenencia de sus miembros a una etnia, raza o nación, su origen nacional, su sexo, orientación o identidad sexual, por razones de género, enfermedad o discapacidad.*>>.

¹⁴ Itzulpena, jatorrizkotik abiatuta: <<*Quienes públicamente fomenten, promuevan o inciten directa o indirectamente al odio, hostilidad, discriminación o violencia (...)*>>.

indarkeriazkoak. Sinonimoak direnez gero, ez dut beharrezkoa ikusten bi terminoen erabilera, bietako baten erabilera tipoa ulertzeko nahikoa baita. Baina azken batean hirurek ideia berdina jasotzen dute, kolektibo ahulen kontrako jokaera oldarkorrak sortzea, nahiz eta joera horiek berehala ez sortu (Gascón Cuenca, 2015: 86; Landa Gorostiza, 2018b: 68).

Artikulu hori aplikatu ahal izateko ondorengo baldintzak bete beharko dira: batetik, gorroto diskurtsoak duen indar handitik ondorioztatzea diskriminazioa, gorrotoa eta biolentzia; eta, bestetik, horren ondorioz behin eta berriz joera hori errepikatuz oinarritzko eskubideei eragitea. Ez da zertan zuzenean eraso behar, hala ere, argi geratu behar da, edozein behatzailek ikusita ere, gorroto diskurtsoak momentuan sortzen dituela jarraitzaileak, jarraitzaile horiek gorroto mezua zabaltzen segituko dutelarik (Landa Gorostiza, 2018b: 69-70).

Kode bereko 510.1.b artikuluan ondorengoa zigortzen da:

<<Banatzeko, hirugarren batzuei lortzen laguntzeko, hedatzeko edo saltzeko asmoz, idazkiak edo beste edozein motatako material edo euskarri ekoizten, egiten edo edukitzen dutenei, baldin eta idazki, material edo euskarri horiek aproposak badira jendaurrean gorrotoa, etsaigoa, bereizkeria edo indarkeria sustatu, bultzatu edo zirikatzeke (...)>>¹⁵

Hots, 510.1.a artikuluan aipatutako bortizkeria hori sortuko duen materiala¹⁶, zabaltzeko edo hirugarrenei horietara sarbidea ahalbidetzeko helburuaz, ekoiztu edo edukitzea edota berauek zabaltzea zigortzen da kode bereko 510.1.b artikuluan. Bertan arrisku abstraktuko delitu bat dela ikus daiteke, arean ere, ez da funtsezkoa berauek zabaltzea, hori egiteko helburua izanik materiala edukitzea nahikoa baita (Gascón Cuenca, 2015: 77). Halaber, tipo penal hau eman dadin ez da aski izango produkzio edo hedatze fasean noizbehinka parte hartzea, hedatutako edukiak adierazgarritasun nahikoa eta intentsitate handia izan behar baitu, hedatze fase finkatu batean egonik. Izan ere, tipoa aplikatzeko diskurtsoko gorroto, bereizkeria, biolentzia edo etsaitasuna eraginkorrak izan beharko dira, jendeak joera horiek diskurtsoa zuzenduta dagoen taldearen oinarritzko eskubideak kaltetuta suertatu arte errepika ditzan. Gainera,

¹⁵ Itzulpena, jatorrizkotik abiatuta: <<Quienes produzcan, elaboren, posean con la finalidad de distribuir, faciliten a terceras personas el acceso, distribuyan, difundan o vendan escritos o cualquier otra clase de material o soportes que por su contenido sean idóneos para fomentar, promover, o incitar directa o indirectamente al odio, hostilidad, discriminación o violencia...>>.

¹⁶ Irudiak, adibidez (Kontseiluaren 2008/913/JAI Esparru Erabakia).

inplikazioa geroz eta handiagoa izan, ezarriko den zigorra geroz eta altuagoa izango da, eta alderantziz (Landa Gorostiza, 2018b: 74-76).

Aldiz, Zigor Kodeko 510.1.c artikulua zigortzen duena zera da:

<<Genozidio delituak, gizarteriaren aurkako delituak edo gatazka armatuaren kasuan babesturiko ondasun eta pertsonen aurkako delituak jendaurrean ukatzen, modu larrian arinki hartzen edo goren dituztenei, edo delituen egileak goren dituztenei, (...)>>¹⁷

Bertatik ondoriozta daiteke nola Nazioarteko Zigor Zuzenbideko krimenak, publikoki ukatu, larriki batere garrantzirik ez eman edo goraiatzea, zigortzen den. Berau 2015eko Zigor Kodearen erreformarekin barneratu zen, kodeko 607.2 artikulua ordezkatzuz (Gascón Cuenca, 2015: 78), baina tipoa justifikazio hitza gehitu gabe (Aguilar García et al., 2015: 204). Artikulu honetan ikus daiteke, nola jarraitzen den Kontseiluaren 2008/913/JAI Esparru Erabakiko 1.c artikuluko eskakizunean hartzen den bide antzekoa <<*la apología pública, la negación o la trivialización flagrante de los crímenes de genocidio,...*>>. Dena den, Zigor Kodeko 510.1.c artikuluan ez da aipatutako erabakian erabiltzen den apologia hitza azaltzen, nahiz eta artikuluan horretan zigortzen denak Zigor Kodeko 18.2 artikulua erabiltzen den apologia definizioarekin bat egiten duen.

Beraz, gorroto diskurtsoak, sortutako joera zirikatzailea dela eta Nazioarteko Zigor Zuzenbideko krimenei¹⁸ garrantzia kentzeko, berauek ukatzeko edo goraiatzeko joera baldin badu eta talde zehatz baten segurtasuna arriskuan jarri bada tipoa bete beharko litzateke. Izan ere, diskurtso horrek bereizkeria, gorroto, biolentzia edo etsaitasun giroa sortu behar izan du (Landa Gorostiza, 2018b: 77-80).

Zigor Kodeko 510. artikulua oinarritzko tipoez gain tipo arinduak ere baditu, Zigor Kodeko 510.2 artikuluan biltzen direnak. Jarraian berauek aztertzeari ekingo diot. Bi tipo horien, oinarritzko eta arinduen, arteko ezberdintasuna zera da: oinarritzko tipoek zigortzen dituzten ekintzak egokiak direla babestutako taldeenganako gorroto, diskriminazio, indarkeria eta areriotasun giroa sortzeko, talde horietako pertsonengan segurtasun eza eta beldurra sortuz, aldiz, tipo arinduek zigortutako ekintzak ez omen

¹⁷ Itzulpena, jatorrizkotik abiatuta: <<*Públicamente nieguen, trivialicen gravemente o enaltezcan los delitos de genocidio, de lesa humanidad o contra las personas y bienes protegidos en caso de conflicto armado, o enaltezcan a sus autores, (...)>>.*

¹⁸ Gizateriaren aurkako delituei, genozidioari eta gerra krimenei erreferentzia egiten die (Aguilar García et al., 2015: 205).

dira giro hori lortzeko gai, baina bai biktimaren duintasuna kaltetzeko (Gascón Cuenca, 2015: 80-82).

Zigor Kodeko 510.2.a artikulua zigortzen duena zera da: arestian aipatutako taldeetakoren bateko kide bati edo batzuei kolektibo horietakoren batekoa izateagatik, pertsona horien edo horren duintasunari kalte egitea, gutxiespen, umiliazio edo ospea galduaraztearen bidez, ahoz, idatziz edo beste material batzuen bidez egin daitekeelarik (Gascón Cuenca, 2015: 81).

Kasu honetan, Zigor Kodeko 510.2.a artikuluan zigortzen diren joerak ez dira hain egokiak babestutako taldeen kontrako gorroto, diskriminazio eta indarkeria giroa sortzeko, baina bai pertsonaren duintasuna kaltetzeko (Gascón Cuenca, 2015: 81). Gainera, bide horiek ez dute soilik pertsona baten duintasuna kaltetzen, kolektibo guztiarena baizik, laido horiek talde bateko pertsoneri buruzko irudia kaltetzea baitute helburu. Horrek gainerakoek kolektibo horietako pertsonak besteak baino maila baxuago batean daudela pentsatzea dakar, berdintasuna galtzen dutelarik. Hortaz, tipo penal honek osotasun morala¹⁹, duintasuna eta ohorearen konbinaketa kaltetzeak ekar dezakeen kolektiboaren segurtasun existentzialaren eraso saihestu nahi du (Landa Gorostiza, 2018b: 81-82).

Tipo arinduekin jarraituz, Zigor Kodeko 510.2.b artikuluan arrazoi diskriminatzaileengatik, aurrez aipatutako babestutako talde bati, talde horretako pertsona batzuei edo kolektibo horretako pertsona baten kontrako burututako edozein delituren justifikazio edo goraipatzea zigortzen da, diskurtsoa adierazpen publiko bidez zabalduz. Bertan ikus daiteke nola artikulua honek, Zigor Kodeko 510.1.c artikulua ez bezala, justifikazio hitza gehitzen duen, berau zigortuz. Arean ere, justifikazio hitzak ekintza horiek positiboki baloratzea dakar, baita beste pertsona batzuegan iritzi berdina sortzea ere (Aguilar García et al., 2015: 205).

Artikulu honetan proportzionaltasun printzipioa nabari daiteke, izan ere, Zigor Kodeko 510.1.c artikuluko ekintzek Nazioarteko Zigor Zuzenbideko krimenei egiten diete erreferentzia, eta 510.2.b artikulua diskriminazio arrazoiengan oinarritutako beste edozein delituri, lehenengoek jende gehiago jar dezaketelarik arriskuan. Bestalde, tipo honen bigarren paragrafoan adierazten da arindutako tipoek deskribatutako ekintzak

¹⁹ Osotasun morala: edozein inguruabar izanda ere pertsona bakoitzak duintasunez tratatua izateko daukan eskubidea litzateke, iraindua edo umiliatua izan gabe (Muñoz Conde, 2002: 184).

egokiak izan badira babestutako taldeenganako gorroto, diskriminazio, indarkeria eta areriotasun giroa sortzeko, urte bat eta lau urte bitarteko kartzela zigorra eta 6-12 hilabete bitarteko isuna ezarriko dela, berriro ere proportzionaltasuna mantenduz (Gascón Cuenca, 2015: 82).

Zigor Kodeko 510.3 eta 510.4 artikulua ere printzipio horren adierazle dira, kode bereko 510. artikuluaen tipo kualifikatuak direnak. Horiek Zigor Kodeko 510.1 eta 510.2. artikuluetako zigorrak goiko erdian ezartzeko aukera ematen dute.

Oinarrizko tipo eta tipo arindu horien zigorrak, Zigor Kodeko 510.3 artikuluaen bidez, aurreko paragrafoan azaldutako eran ezartzeko hurrengo bete beharko da: diskurtsoa pertsona kopuru altu bati heldu beharko zaio, internet, teknologia edo beste komunikazio sozial baten bidez. Hau da, joera pertsona ugari, masiboki, heltzeko egokia den bide baten bidez egina izan beharko da (Aguilar García et al., 2015: 206). Horretarako, interneta, gaur egun horrenbeste erabiltzen dena, esaterako, oso tresna egokia da, arean ere, askoz jende gehiagorengana heltzea ahalbidetzen du, diskurtsoa jasotzen duen pertsona kopurua esponentzialki haziz, baita gorroto, indarkeria, areriotasun eta diskriminazio giroa sortzeko aukerak ere (Gascón Cuenca, 2015: 83). Halaber, diskurtsoa jende ugari heltzeaz gain, egileak doloa izan beharko du, delitua burutu baino lehen gorroto diskurtsoa masiboki zabalduko zela auresangarria izanik (Landa Gorostiza, 2018b: 86).

Arestian ikusi da Zigor Kodeko 510.1 eta 510.2 artikuluetako zigorrak goiko erdian ezarri daitezkeela. Aldiz, Kode bereko 510.4 artikuluaen tipo horietako zigorrak goiko erdian ezartzeaz gain, gradu bat gehiagora arte igotzeko aukera ere ematen du. Artikulu hori aplikatu ahal izateko gertakariak egokiak izan beharko dira lasaitasun publikoa aldatzeko edo zuzenduta dagoen taldearen partaideen artean segurtasun falta edo beldurra sortzeko. Eta hori gertatuko da gorroto diskurtsoak taldeko partaideei pentsarazten dienean erakunde demokratikoei ezin dietela oinarrizko eskubideak gauzatzeko segurtasun minimorik eskaini (Landa Gorostiza, 2018b: 87-88; Rodríguez Ferrández, 2014: 188).

Hate speech-en oinarrizko tipoak eta kualifikazioak aztertu ondoren, Zigor Kodeko 510. artikuluko gainerako laburki aurkeztuko ditut²⁰. Kode horretako 510.5 artikulua, kasu guztietan, kartzela zigor eta isunaz gain, adin txikikoen interes gorena

²⁰ Gehiago sakondu nahi izanez gero ondorengo iturrietara jo: Landa Gorostiza, J. M. (2018b) *Los delitos de odio*, 88-89. eta Gascón Cuenca, A. (2015). La nueva regulación del discurso del odio en el ordenamiento jurídico español: la modificación del artículo 510 CP. *Cuadernos Electrónicos de Filosofía Del Derecho*, 0(32), 73-92.

babestu ahal izateko, oinarrizko zigor metatzailea ezartzen die gorroto diskurtsoa burutu dutenei. Zigor hori hezkuntzan, irakaskuntzan, kirolean eta denbora librean lanean aritzeko beste 3 eta 10 urte bitarteko gaitasungabetzea izango da. Berau delituaren larritasuna, burutu den aldi kopuruaren eta delitugilearen inguruabarren arabera altuagoa edo baxuagoa izango da (Gascón Cuenca, 2015: 84; Rodríguez Ferrández, 2014: 189-190). Zigor Kodeko 510.6 artikuluari esker, aldiz, epaileak aurreko artikuluetan aipatutako delituak burutzeko erabili diren bideak suntsitu, ezabatu edo deuseztatzea aginduko du. Gainera, mezua teknologien bidez zabaldu denean edukia ezabatzeko erabakia hartuko da, baita edukia dagoen tokira sarbidea blokeatu edo zerbitzuaren funtzionamendua eteteko ere. Azkenik, Zigor Kodeko 510 bis artikulua arabera, propaganda delituak burutzearen erantzuleak pertsona juridikoak direnean, 2 eta 5 urte bitarteko isuna ezarriko zaie.

Gorroto diskurtsoa zigortzen duen araudia aztertuz, ikusi ahal izan da Zigor Kodean 2015. urtean egindako erreformari esker diskurtso horrekin amaitzeko araudi sakonago bat dagoela, azaldutako sei atalen bidez proportzionaltasun printzipioa mantenduz. Halaber, adin txikien interes gorena babesten da, hezkuntzan ideia arrazista eta transfoboak, esaterako, ezin zabaldu ahal izateko (Gascón Cuenca, 2015: 86-88).

Beraz, atal honetan ondoriozta daiteke, Zigor Kodeko 22.4, 510. eta 510 bis artikuluei esker tipo horietan atxikitutako taldeek babesa jasotzen dutela. Era berean, aurreratu dezaket kode horrek artikuluen bidez LGTBI+ kolektiboa LGTBIfobia delituengandik babesten duela. Lanean zehar era horretako delituei buruz gehiago sakonduko dudan arren, baieztapen horrekin bat datoz ere: Gamá deituriko LGTB elkarteak CALDERÓN PÉREZ abokatua (komunikazio pertsonala, 2020ko abenduaren 12an); Segoeintende LGTBH elkarteak (komunikazio pertsonala, 2020ko abenduaren 4an); eta Arcópoliko, Madrileko autonomia-erkidegoko LGTB elkarteak zuzenbide saila (komunikazio pertsonala, 2021eko otsailaren 10an)²¹. Hala ere, hurrengo atalean ikusiko den lez, talde horiek gorroto delituak jasaten jarraitzen dute.

²¹ Espainian LGTBI+ kolektiboaren eskubideen alde lanean dabilzan 50 elkarte baino gehiagori korreo elektroniko bidez Zigor Kodeak LGTBI+ kolektiboa gorroto delituetatik era egokian babesten duela uste duten galdetu ondoren, horiek izan ziren erantzuna emateko aukera izan zutenak.

3. Gorroto delituen azterketa kuantitatiboa eta horri buruzko hausnarketa: bereziki orientazio eta identitate sexualean oinarrituz

Gaur egun hainbatetan entzun eta ikusten dira komunikabideetan gorroto delituei buruzko albisteak eta *hate crime* gizartean barneratuta dagoen kontzeptua dela dirudi. Hala ere, ez dira urte asko pasa Espainian gorroto delituen datuak era espezifikoan jasotzen hasi zirenetik. Areak ere, XXI. mendeko bigarren hamarkadaren hasieran zenbait nazioarteko eta Europako erakundek adierazten zuten lez, Europako beste hainbat herrialdetan ez bezala, Espainian ez zen gorroto delituen estatistika ofizialik egiten, eta hori aldatzea eskatzen zuten Nazio Batuek (*Movimiento contra la Intolerancia*, 2010: 5). Izan ere, datuok ez badira ezagutzera ematen delitu horiek existitzen ez direla dirudi (Landa Gorostiza, 2018b: 4). Horregatik, gorroto delituen datu jasoketa egokia ezinbestekoa da gizartean duen eraginaren irudi osoago eta egokiago bat izateko (Ministerio del Interior, 2019: 3). Gauzak horrela, 2014. urtean Barne Arazoetako Ministerioak gorroto delituei buruzko lehenengo txosten espezifikoa argitaratu zuen, 2013. urteko datuak aurkeztuz (Landa Gorostiza, 2018a: 5; López Ortega, 2016: 142). Harrezkero, zenbait autonomia erkidegoetan ere datu horien bilketa egiten da.

Aurreko paragrafoan aipatutako Ministerioak aurkeztutako txostenetan gorroto delituen datu jasoketa egiten dela adierazten da, txosten horien datuen trataeran gorroto delitu kontzeptua erabiltzen baita. Hala ere, terminologia hori erabiliz, delitu horiez gain, ilizitu administratibo eta beste intzidente batzuen datuak ematen dira. 2019. urtea izan zen datuetako batzuk aurkeztean, ez guztiak, delitu eta ilizituen arteko bereizketa egin zen lehen aldia. Dena den, gorroto gertakari horietatik gehienak gorroto delituak zirela adierazi behar da, urte hartan jasotako 1.706 gorroto gertakariren artetik 1.598 delituak baitziren, esaterako, orientazio eta identitate sexualaren kontrako 278 *hate crime* kasu egonez (Ministerio del Interior, 2019: 4).

Baina nahasketa horrek²² datu jasoketaren baliagarritasuna murrizten du. Izan ere, Martín Aragónek (2019: 8) adierazten duenez, gorroto kategorian ilizitu administratiboak barneratzeak errealitatearen irudi desitxuratua sortzen du. Hori dela eta, Barne Arazoetako Ministerioak gorroto delitu bezala aurkeztu dituen datuak aztertzeke gorroto gertakari hitza erabiliko dut, gorroto delituak burutzeko arrazoi

²² Terminologiaren kontsentsu faltak eta estatuen barne legeriaren batasun faltak, beste arrazoi batzuekin batera, gorroto delituen datu zehatzak izatea zailtzen dute (López Ortega, 2016: 144).

berdinetan oinarritutako ordenamenduaren aurkako portaerei erreferentzia egingo diedalarik.

Beraz, esan bezala, estatu mailan gorroto gertakariak era espezifikoan jasotzeaz Barne Arazoetako Ministerioa arduratzen da, urte bakoitzean zehar jasotako era horretako gertakariak era ezberdinetan sailkatuz.

Datu horiek aztertuz, gorroto delitu tipologiei dagokienez, Ministerio horrek egindako ikerketen arabera 2015. urtetik²³ aurrera gehien errepikatzen diren gorroto gertakariak lesio edo mehatxu eran ematen dira, horien ondoren kalteak, jarraian, konstituzioaren aurkako beste delitu batzuk eta azkenik irainak egonik. Hala ere, ez da adierazten zeintzuk diren kolektibo bakoitzak jasaten dituen gorroto gertakari ohikoenak.

Gertakari horiek tipologiaz gain, Barne Arazoetako Ministerioak, arrazoi ezberdinen arabera sailkatzen ditu, zioetako batzuk ondorengoak izanik: antisemitismoa, aporofobia, ideologia, dibertsitate funtzionala²⁴, arrazakeri/xenofobia eta orientazio edo identitate sexuala.

2015 eta 2016 urteetan Ministerio horrek erregistratutako gorroto gertakarien gehiengoa izaera arrazista edo xenofoboa dutenek osatzen dute, 2015ean gertakari horien %38ak eta 2016an %32,7ak izaera hori izan baitzuten. Horien atzetik datoz ideologiaren aurkako gorroto gertakariak, 2015ean gertakarien %23,2a eta 2016an %20,4a ideologiaren kontra burutu baitziren. Jarraian, dibertsitate funtzionalaren aurkakoko gorroto gertakariak kokatzen dira, 2015ean gertakarien %17 eta 2016an %20,6ko portzentaiekin (Ministerio del Interior, 2015: 12, 2016: 13).

2017. urteaz geroztik, aldiz, aurreko paragrafoetan aipatutako Ministerioak erregistratutako gorroto gertakarietatik gehien errepikatzen direnak arraza edo atzerritarren, ideologia eta orientazio edo identitate sexualaren aurka burututakoak izan dira, hurrenez hurren. Hau da, gorroto gertakarien biktima izan diren kolektibo erasotuenak aldatu direla ikus daiteke, sexu-joera eta -identitatearen aurkako gertakari

²³ Barne Arazoetako Ministerioak 2015. urtetik aurrera egindako txostenak hartuko ditut aintzat. Izan ere, 2015. urtean hasi zen Ministerio hori sexu edo generoagatiko gorroto gertakariak orientazio edo identitate sexualagatiko gorroto gertakariengandik bereizten. Hori dela eta, urte horretatik aurrera zehaztasun gehiagorekin ezagutu daiteke zeintzuk izan diren LGTBI kolektibokoa izateagatik gertatutako gorroto kasuak, Gradu Amaierako Lan honen ardatz diren egoera pertsonalen aurkakoak, hain zuzen ere (Carratalá eta Herrero-Jiménez, 2019: 60-61).

²⁴ 2017. urtera arte desgaitasuna erabili da Barne Arazoetako Ministerioaren txostenetan, 2017tik aurrera, berriz, dibertsitate funtzionala. Izan ere, desgaitasunak konnotazio negatiboa izan dezake, hitz horrek erreferentzia egiten dien pertsonak gai ez direla adierazi dezakeelarik (Ministerio del Interior, 2017: 9). Horregatik, dibertsitate funtzional terminoa erabiliko dut datuak aurkezteko garaian.

horien portzentaiak igo dira eta dibertsitate funtzionalaren aurkakoak, berriz, jaitsi. Dena den, adierazi behar da, jasotako dibertsitate funtzionalaren kontrako gorroto gertakarien jaitsiara zenbaketa metodologiaren aldaketagatik eman zela (Ministerio del Interior, 2017, 2018, 2019).

Orokorrean gorroto gertakarien zifra handitu egin da, gero eta gertakari gehiago jasotzen direlarik. Horren adierazle da 2015ean 1.328 gorroto gertakari erregistratu zituela Barne Arazoetako Ministerioak eta 2019an, aldiz, 1.706 (Ministerio del Interior, 2015: 12, 2019: 6). Baina igoera horrek ez du zertan negatiboa izan, era horretako gertakariak sortzen duten kalteaz kontzienteago izanez haiei arreta gehiago eskaintzen hasteak eragina izan dezake eta. Arian ere, aipatutako Ministerioaren arabera, gorakadaren arrazoi nagusienetakoa Koordinazio eta Ikerketa Kabineteko gorroto gertakarien aurkako Bulego Nazionalaren sendotzea izan da, horrek halako gertaerak salatzen beharraz eta gorroto gertaerak behar bezala jasotzeaz sentsibilizatzea ekarri duelako (Ministerio del Interior, 2018: 36).

Barne Arazoetako Ministerioak argitaratutako txostenetako datuei erreparatuz, arreta jarri behar zaio adingabeek gorroto gertakarietan duten rolari. Era horretako gertakarien 18 urtetik beherako biktimei buruzko datuak aurkezten hasiz, adierazgarria da 2015tik aurrera jasotako gertakarietatik adinez txikiko biktima gehien izan dituzten hiru taldeen artean orientazio eta identitate sexuala urtero egotea. Esaterako, 2015 eta 2018an gorroto delituen adin txikiko biktima gehienak haien sexu-joera eta -identitateagatik erasotutak izan ziren, aldiz, 2017 eta 2019. urteetan arraza edo atzeritarra izateagatik edo sexu-orientazio edo -identitateagatik, hurrenez hurren. Baina proportzioan adingabeko biktima gehien dituzten gorroto gertakariak LGTBIfobia izatera dute. 2015. urtean, adibidez, orientazio edo identitate sexualagatik burututako erasoen biktimen %30a adinez txikikoa, adin-talde ahulena, izan zen (Ministerio del Interior, 2015, 2016, 2017, 2018, 2019).

Egoera hori aldatu beharra dago, izan ere, gorroto gertakari horiek haurtzaro edo nerabezaroan jasatea oso arriskutsua da, adin hori psikologoaren arabera funtsezkoa baita pertsonaren identitatea eraikitzen, bertan jasandako diskriminazioak kalte handiagoa sortzen duelarik (Moreno Fernández, 2018: 121). Hori dela eta, ezinbestekoa da instituzioek egoera hori aldatzea lortzeko lan egitea, egungo gazteak eraso horien beldurrez, laugarren atalean ikusikoenez, haien identitate edo orientazio sexuala ezkututzen ez hasteko, duela urte batzuk gertatzen zen bezala (Martín Aragón, 2019: 14; Observatorio Madrileño contra la Homofobia, Transfobia y Bifobia, 2017: 127).

Biktinez gain, badira gorroto gertakariak burutzen dituzten adinez txikikoak ere. Halaber, 2017 eta 2019an, esaterako, Espainian izandako Barne Arazoetako Ministerioak jasotako gorroto gertakarien adin txikiko egile gehien izan dituzten gertakariak LGTBIfobia izaera izan dute, batez ere gizon homosexualtzat hautemandakoen kontra burututakoek (FELGTB, 2018, 2019; Ministerio del Interior, 2017, 2019).

Egoera horrek erakusten du nahiz eta Zigor Kodean 1995. urtean barneratu ziren orientazio sexualaren aurkako gorroto delituak debekatzen dituzten arauak, egile horiek, haurrak zirenetik tipo horiek indarrean egon arren, gorroto ekintzak burutzen jarraitu dutela. Bertan agerian geratzen da Zigor Kodeak gorroto delitu horiek debekatu baditu ere, gizarteari mezu garrantzitsu bat bidaliz, kode hori ez dela nahikoa LGTBIfobia gorroto delituekin amaitzeko. Hots, politika kriminala ezin da Zigor Kodearekin bakarrik egin eta beste esparru batzuetan ere neurriak hartu behar dira diskriminazio hori eteteko. Bereziki, adinez txikiko pertsonengan heziketak duen garrantzia kontuan izanik, adibidez, gazteak berdintasunean heziko balira, aurreiritziak alde batera utziz, poliki-poliki gorrotoa atzean geratuko litzateke (Vallejo, 2019). Izan ere, orain arte eskoletan heziketa afektibo sexuala landu izan denean, gehienetan, pertsona zisgenero heterosexualetara bideratua izan da, gainerako errealitateak aurkeztu gabe aurreiritziak areagotuz (Vallejo, 2018c).

Lan honetan, batez ere orientazio eta identitate sexualaren kontrako gorroto delituetan sakonduko dut, 2017tik Barne Arazoetako Ministerioaren arabera hirugarren gorroto gertaera errepikatuenetan, hain zuzen ere. Beraz, jarraian egoera pertsonal horien kontrako gorroto gertakariak baino ez ditut aztertuko.

Ministerio hori LGTBIfobia gertakarien datuak sexu eta genero arazoietatik banatuta jasotzen hasi zenetik gorakada izan dute egoera pertsonal horien kontrako era horretako gertakariak. Igoera hori argi ikus daiteke, arean ere, 2015ean sexu-joera eta -identitatearen kontrako gorroto gertakariak 169 izatetik 2019. urtean 278 izatera pasa dira. Hau da, 4 urtetan %64,5ean igo dira, Barne Arazoetako Ministerioaren arabera, Espainian gertatutako orientazio eta identitate sexualaren aurkako gertakariak. Hala ere, Ministerio horrek aurkeztutako txostenetan ez da LGTBIfobia kasuen igoeraren azalpenik ematen, orokorrean gorroto gertakarien igoerarenak baizik (Ministerio del Interior, 2015: 12, 2019: 6).

Espainian, Barne Arazoetako Ministerioak ez bezala, badira LGTBIfobia gertakariak modu espezifikoa, beste arrazoi batzuetan oinarritutako gorroto gertakariak

aintzat hartu gabe, jasotzen dituzten zenbait erakunde, hala nola Federación Estatal de Lesbianas, Gais, Trans y Bisexuales (FELGTB)²⁵ edo Observatorio Madrileño contra la Homofobia, Transfobia y Bifobia, sexu-joera eta identitatearen kontrako diskriminazioarekin amaitzen laguntzen ari direnak.

FELGTB edo aurrez aipatutako behatokiak, esaterako, ez dituzte LGTBifobia gorroto delituak bakarrik jasotzen, horrez gain izaera horretako ilizitu administratibo eta beste ilizitu batzuk ere aintzat hartzen dituzte²⁶, Kirolean indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren kontrako uztailaren 11ko 19/2007 Legearen aurkakoak, adibidez. Gainera, erakundeok adierazten dute gorroto gertakari kontzeptua erabiltzean era ezberdinetako ilizitu eta *hate crime*-i erreferentzia egiten dietela.

Observatorio Madrileño contra la Homofobia, Transfobia y Bifobia-k edo FELGTB-k sexu-joera eta -identitatearen aurkako gorroto gertakariak hainbat iturritatik biltzen dituzte, hala nola komunikabideetan argitaratutako informazioetik, behatoki ezberdinetara jotzen dutenek lehenengo pertsonan kontatutakoetatik edo korreo elektronikoz iritsitako kasuetatik (FELGTB, 2019: 7). Barne Arazoetako Ministerioak aurkeztutako txostenetako datuak, ordea, gorroto gertakari buruz egindako salaketa formaletatik baino ez dira jasotzen, eta horrek ez du gertatzen diren gorroto gertakarien ikuspegi osoa ematen (FELGTB, 2019: 4). Gainera, Ministerio horrek aurkeztutako datuek hainbat muga dituzte, horietako batzuk estatuko segurtasun-indar eta kidegoen gorroto delituak antzemateko formazio faltak edo salaketa formalak aurkezteko LGTB+ kolektiboak duen beldurra sortuak. Ondorioz, datuen erregistroa ez da hain eraginkorra (FELGTB, 2019: 8; López Ortega, 2016: 143).

Errealitatearen ikuspuntu mugatuago hori agerian geratzen da, esaterako, Barne Arazoetako Ministerioaren eta FELGTB-ren datuak alderatuz. Ministerio horrek 2019. urtean 278 LGTBifobia delitu, guztira beste diskriminazio arrazoi batzuetan oinarritutako

²⁵ FELGTB-k gorroto gertakariak jasotzeko, beste hainbat erakunderen laguntzaz, hala nola Arcópoli edo Cogam, lan handia egin duen estatu mailako erakunde bat da (FELGTB, 2013, 2018, 2019). Honek, Espainiako 55 erakunde LGTB+ biltzen ditu eta aniztasun afektibo-sexual, genero eta familiarrean erreferentea da, hiru oinarri izanik: gizarte errespetu eta berdintasun legalaren aldarrikapena; sentsibilizazio eta salaketa; gizarte errespetu eta berdintasun legalaren aldarrikapena eta boluntario eta aktibisten formakuntza (FELGTB, 2021).

²⁶ Izan ere, erakunde horien ustez biztanleriaren gehiengoarentzat ulergarriagoa suertatzen da datuak era horretan aurkeztea, Arcópoliko, Madrileko Autonomia Erkidegoko LGTB elkarteko, zuzenbide sailak (komunikazio pertsonala, 2020ko abenduaren 3an) adierazi zidan lez. Halaber, gorroto delituak ez direnez LGTBifobiaren adierazle bakarrak, eta badirenez orientazio edo identitate sexualaren kontra burututako beste zenbait gertakari biktimaren duintasun, konfidantza eta autoestimua kontra egiten dutenak, gertakari horiei garrantzia kendu gabe, errealitate hori agerian utzi nahi da (Observatorio Madrileño Contra la Homofobia Transfobia y Bifobia, 2019: 10, 35).

108 ilizitu administratibo, jaso zituen. Federazioak, berriz, urte berean orientazio eta identitate sexualaren aurkako 971 gorroto gertakari biltzeko aukera izan zuen (FELGTB, 2019: 8).

Halaber, LGTBfobiaren aurka lanean dabiltzan erakundeek egiten dituzten txostenek orientazio eta identitate sexualaren aurkako gorroto gertakarien inguruan informazio zehatzagoa ematen dute. Madrileko behatokiak, esaterako, gertakariak zein egoera pertsonaletan oinarritzen diren aurkezten du, transfobia, bifobia, lesbofobia,... kasuak ezberdinduz²⁷. Aldiz, Barne Arazoetako Ministerioak LGTBfobia gertakarien datuak batera ematen ditu, eraso bakoitza zertan oinarritu den adierazi gabe.

Arestian erreferentzia egin diodan Observatorio Madrileño contra la Homofobia, Transfobia y Bifobia LGTBfobiaren aurkako gorroto gertakarien datu jasoketan esperientzia duen adibide bat da. Berau 2016an²⁸ hasi zen LGTBfobia gertakarien datuak biltzen. Behatoki horrek aurkeztutako txostenek azaltzen duten bezala 2017an 321 LGTBfobia gorroto gertakari bildu ziren, eta gehiago egon zirela aitortzen den arren, horiek jasotzeko gai izan ziren. 2019an ere 321 kasu bildu ziren, horien gehiengoa Madrileko kapitalean gertatu zirelarik. Gainera, jasotzen diren gorroto gertakari kopuru handiena gizon homosexual bezala hautemandakoek jasan dituztenek osatzen dute (Observatorio Madrileño contra la Homofobia, Transfobia y Bifobia, 2017: 93-99, 2018: 97, 2019: 136-144).

Atal honetan behin baino gehiagotan azaldu da jasotako LGTBfobia kasu gehienak ez direla emakume lesbiana, bisexual, intersexual edo transek²⁹ pairatutako gertaerak izan, gizon homosexualtzat hautemandakoek jasandakoak baizik, eta ez da kasualitatea. Izan ere, gizarte matxistak, emakumea biolentzia jasatera behartu du, indarkeria hori normalizatzerara helduz. Gizonak, berriz, ez daudenez hain ohituta bizi duten biolentzia onartzera, haiek jasandako gorroto gertakariak emakumeek baino

²⁷ Behatoki horrek ez du zehazki intersexualitatearen kontrako gorroto delitu kasurik aurkezten. Izan ere, behatokiaren arabera pertsona intersexual batek jasan ditzakeen gorroto gertakariak pertsona hori orientazio sexual edo genero adierazpen zehatz batekin lotzeagatik izaten da, ez intersexuala izateagatik (Arcopoliko zuzenbide saila, komunikazio pertsonala, 2020ko abenduaren 3an).

²⁸ 2016ko datuak ez ditut aurkeztuko, 2017koak baizik. Izan ere, 2016an urtariletik ekainera LGTBfobia gorroto gertakariak baino ez ziren jaso eta urte osoko datuak adierazgarriagoak direla deritzot.

²⁹ Trans terminoak terminoak transexual eta transgenero hitzak barne hartzen ditu, eta kolektibo horren gehiengoak trans kontzeptua erabiltzea nahiago duenez nik ere hala egingo dut (Fundéu RAE, 2017). Izan ere, transgenero hitzak jaiotzean izendatu zitzaizen generoarekin identifikatuta sentitzen ez diren pertsonen egiten diete erreferentzia, aldiz, transexual terminoak, hala sentituz, sexu-aldaketa kirurgia burutu dutenei.

gehiago ezagutarazten dituzte, eta horrek emakumeen ikusezintasuna areagotzen du (Observatorio Madrileño contra la Homofobia, Transfobia y Bifobia, 2017: 117).

Behin Espainiako egoera aurkeztu ondoren, Europan bizi den errealitatea azalduko dut, bertan ere gorroto gertakarien jasoketan lan egiten baita. Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Agentziak bi inkesta zabal egin ditu: bata 2012an, garai hartako Europar Batasuneko eta Kroaziako 93.079 LGTBI+ biztanleei (FRA, 2014: 116); bestea, aldiz, 2019an Europar Batasuneko, Ipar Mazedoniako Errepublikako eta Serbiako 140.000 LGTBI+ pertsoneri, inkesta egin aurreko 5 urteetan pairatutako diskriminazioei buruz galdetuz (FRA, 2020: 3). Bertan, ez dira gorroto delituak bakarrik jasotzen, era ezberdinetako diskriminazioak baizik, lanean edo bizitzako beste aspektu batzuetan jasandakoak, adibidez (FRA, 2020: 3-5).

Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Agentziak adierazten duen lez, 2012. urtetik LGTBI+ kolektiboaren aurkako gorroto gertakarietan eman den aurrerapena oso txikia izan da (FRA, 2020: 3), eta hori beldurgarria da 2019an egindako inkestan lortutako datuak ikusirik. Izan ere, inkestatuen %11 LGTBI+ izateagatik fisikoki edo sexualki erasotua izan zen azken 5 urteetan, pertsona transen kasuan %17a eta intersexualen kasuan, aldiz, %22a. LGTBI+ kolektibokoa izateagatik jazarpena inkestatuen %38ak jasan zuen, 53.200 pertsonak, hain zuzen ere. Datu hori pertsona transen kasuan %48ra igo zen da eta intersexualenean, berriz, %42ra (FRA, 2020: 38).

Orain arte aurkeztutako txostenek Espainian LGTBIfobiaren kontrako gorroto gertakari ugari ematen direla frogatzen dute, baina pila bat direla dirudien arren, datu horiek izozmendiaren punta baino ez dira, zenbait erakundek plazaratutako datuen arabera LGTBIfobiagatik gorroto delituen zifra beltza, salatu gabeko delitu kopurua, oso altua baita. Esaterako, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Agentziak 2012an egindako inkestak argi uzten du inkestatuen %10ak bakarrik jakinarazi zizkiola poliziarri edo beste erakunderen bati LGBTI izateagatik azken bost urteetan jasandako jazarpeneren larrienak (FRA, 2014: 77). 2019an agentzia berberak egindako inkestak erakusten duen lez, LGTBI+ kolektibokoa izateagatik eraso fisiko edo sexuala pairatu zutenen %21ak jakinarazi zion erakunderen bati, eta poliziarri, berriz, %14ak. Aldiz, jazarpeneren kasuan inkestatuen %10ak jarri zuen norbait jakinarenean, poliziarri jakinarazi ziotenen portzentaia %4koa izanik (FRA, 2020: 38).

Estatu mailako FELGTB-k ere LGTBIfobiagatik gorroto gertaera gehienak ez direla salatzen adierazten du, adibidez, 2016an FELGTB-k UNI Form proiektu europarrean egindako inkestak erakusten du orientazio edo identitate sexualaren

kontrako gorroto gertakirak jasan dituztenen %12ak bakarrik salatu zuela poliziaren aurrean. Autonomia-erkidegoetako behatokiek ere denuntzia falta dagoela adierazten dute, horren adibide da Observatorio Madrileño contra la Homofobia, Transfobia y Bifobia-k, 2018an, esaterako, Madrilén gertatutako LGTBIfobiagatik gorroto gertaeren %70a ez zela salatu erakutsi izana (Observatorio Madrileño Contra la Homofobia Transfobia y Bifobia, 2018: 103).

Zifra beltz horren arrazoiak ikertzea garrantzitsua da, izan ere, gorroto delituak ezagutzen ez badira zailagoa izango da horiei aurre egitea (Landa Gorostiza, 2018a: 4). Salatzen ez diren delitu kopuru altuaren arrazoiak askotarikoak dira, baina jarraian gehien errepikatzen direnak zeintzuk diren adieraziko dut.

Hate crime-ak ez salatzeke zioetako bat LGTBI+ kolektiboko pertsonen erasoak hein handi batean onartzea da, kolektibo horretakoa izateagatik erasotua izatea legitimoa dela pentsatuz eta horregatik errudun sentituz. Kasu batzuetan, gainera, eraso horienganako tolerantzia maila altuagoa izan ohi da, gainerako pertsonen eraso bezala hartuko luketena hala ez identifikatuz. Alean ere, gizarte heteropatriarkalak eta txikitatik egunerokoan jasandako erasoek ideia hori transmititu dute, gorroto hori sufritzea normalizat hartzerantz heldu arte (Aguilar García et al., 2015: 71; FELGTB, 2019: 41; Observatorio Madrileño Contra la Homofobia Transfobia y Bifobia, 2017: 11, 2018: 41). Hori dela eta, LGTBIfobia gorroto delituekin amaitzeko, eta ikusezinak direla ez sentitzeko, garrantzitsua da LGTBI+ kolektiboari elkarte eta instituzioek babes ematea. Horri esker, kolektibo horretako pertsonen, edozein eratako erasoek haien duintasun eta berdintasunerako eskubidea kaltetzen dutela barneratuko lukete (Martín Aragón, 2019: 14).

Bestalde, ohikoa da administrazio eta poliziarenganako beldurra. Izan ere, laugarren atalean ikusiko den bezala, homosexual eta transak, adibidez, historikoki poliziarengandik eta legearengandik jazarriak izan dira, diren bezalakoak izateagatik. Hau da, esparru horretan, poliziarengandik ez dute babesik jaso, kontrakoa baizik. Hori dela eta, esaterako, estatuko segurtasun-indar eta kidegoek haien orientazio eta identitate sexuala ezagutzean izango duten erantzunak ikara sor dezake LGTBI+ kolektiboko pertsonengan (Aguilar García et al., 2015: 71; FELGTB, 2019: 8; Observatorio Madrileño Contra la Homofobia Transfobia y Bifobia, 2017: 129, 2018: 11).

LGTBIfobia delituak salatzeak ezertarako balio ez duenaren ustea zifra beltzaren arrazoi errepikakor bat da, salaketa ez dela ikertuko eta legezko akziorik ez delakoan hartuko. Alean ere, haien testigantza sinetsia izango ez dela eta sufritu dituzten gorroto

delituak inori ez zaizkiola interesatuko pentsatzea ohikoa da LGTBI+ kolektibokoa izateagatik erasotutako izan diren pertsonengan (Aguilar García et al., 2015: 71; FELGTB, 2019: 8; FRA, 2014: 3; Observatorio Madrileño Contra la Homofobia Transfobia y Bifobia, 2017: 129). Horren atzean egon daitekeen zioetako bat zera da: estatuko segurtasun-indar eta kidegoek LGTBI+ kolektiboari buruz, batez ere pertsona transei buruz duten formakuntza falta dela eta, ez dituztela pertsona horiek bizi dituzten gorroto delituak *hate crime* bezala sailkatzen, batzuetan pertsona horiek bizitako erasoek garrantzirik ez dutela pentsatuz (Calderón Pérez, I. A., komunikazio pertsonala, 2020ko abenduaren 12an; Segoentiende LGTBH elkarteak, komunikazio pertsonala, 2020ko abenduaren 4an).

Azkenik, arrazoi errepikatuenetako bat orientazio eta identitate sexuala ezagutzera emateko beldurra da, beste gorroto delitu batzuetan gertatzen ez dena. Izan ere, LGTBI+ kolektiboa gizartean ezkatuta egon da eta oraindik ere toki batzuetan ikusezintasun hori mantentzen da. Hori batez ere hiri txiki eta herrietan gertatzen den fenomeno da, non orientazio eta identitate sexual ezberdinak gaitzesten jarraitu ohi diren, kasu askotan LGTBI+ pertsonak toki horietatik alde egitera heldu arte. Horregatik, orientazio edo identitate sexualaren aurkako gorroto delitu bat salatzeak, herri eta hiri txikietan batik bat, identitate edo sexu-joera ezagutaraztea dakar, horrek familia, lan eta esparru pertsonalean ondorio negatiboak sor ditzakeelarik (Aguilar García et al., 2015: 75; FELGTB, 2019: 8; Observatorio Madrileño Contra la Homofobia Transfobia y Bifobia, 2017: 11-129).

Atal honetan agerian geratu da gero eta lan gehiago egiten ari direla autonomia-erkidego, estatu eta Europa mailan, *hate speech*-arekin amaitzen lagunduko duten, gorroto gertakariei buruzko datuak aurkezteko. Horiei esker, ikus daiteke *hate crime*-ak burutzen direla, goranzko joera izanik, eta, esan bezala, igoeraren arrazoietako bat gertakari horien datu jasoketak duen garrantziaz gehiago sentsibilizatu izana da. Hala ere, LGTBIfobia delituen zifra beltz tasak altua izaten jarraitzen du, zio ezberdinak direla medio, hala nola LGTBI+ kolektiboko pertsonen haien orientazio eta identitate sexuala ezagutarazteko beldurra edo haien kontrako erasoak normaltzat hartu izana. Eta ez da ahaztu behar gorroto gertakari horienganako tolerantzia maila altua emakumeen kasuan ohikoagoa dela, jasaten dituzten erasoek ikusezintasuna areagotuz.

Egoera horren aurrean LGTBI+ elkarteek egiten duten lanak garrantzi handia duela ikusi da, zenbait arrazoi direla medio: salaketa formalen bidez jasotako gorroto gertakariez gain, beste iturri batzuetatik bildutako orientazio eta identitate sexualaren kontrako kasuak bildu izana, errealitatearen ikuspegi zabalagoa erakutsiz; edo LGTBI+

kolektiboari babesa ematea; baita berdintasunean oinarritutako heziketa eskaintzea ere (FELGTB, 2021). Horregatik, garrantzitsua da elkarte horiei instituzioen aldetik laguntza ematea. Baina argi geratu dena zera da: LGBTIfobia delituekin amaitzeko Zigor Zuzenbidetik haratago dauden neurriak hartzea beharrezkoa dela.

4. Orientazio eta identitate sexualaren kontrako gorroto delituen arauketaren hastapenak

Egun LGBTI+ kolektiboak, gorroto delituen eremuan, Zigor Kodearen babesa duen arren, geriza hori ez da ordenamenduan betidanik egon. Halaber, orientazio eta identitate sexuala Zigor Kodeko 22.4 eta 510. artikuluetan barneratzea ez da egun batetik bestera lortutako kontua izan.

Diktadura frankistaren garaian, 1954. urtean 1933ko abuztuaren 4ko Alfer eta Gaizkileei buruzko Legea, arrisku soziala sortzen omen zutenei segurtasun neurriak ezartzen zizkiena, erreformatu zen (Terradillos Basoco, 2020: 64). Erreforma horren bidez homosexualitatea gehitu zen bertako supostuetara, zeintzuen artean proxenetak eta adingabeak esplotatzen zituztenak zeuden. Hortik aurrera, legeak pertsona homosexualak arriskutsuak kontsideratzen zituen, Espainiako moral osasuntsua mindu eta bake sozialaren aurka egiten zutelakoan (1954ko uztailaren 15eko Alfer eta Gaizkileei buruzko Legea). Gainera, ez zen beharrezkoa harreman homosexualak izatea pertsona bat arriskutsutzat hartzeko, horretarako homosexualak izate hutsa aski baitzen (Terradillos Basoco, 2020: 81).

Aipatutako legeak aldarrikatzen zuen helburua ez omen zen zigortzailea, legeak arriskutsuak zirela kontsideratzen zituen pertsonak “zuzentzea” baino. Hori dela eta, esaterako, homosexualak erakunde berezi batzuetan guztiengandik aldentuta barneratzea ezartzen zuen (1954ko uztailaren 15eko Alfer eta Gaizkileei buruzko Legea; Terradillos Basoco, 2020: 78). Hala ere, praktikan ez zen legeak agintzen zuena jarraitu homosexual eta transek segurtasun neurriak espetxeetan bete zituztelarik, hau da, praktikan izaera zigortzailea zuen (Campos Marín, 2016: 38).

1970. urtean, berriz, aurreko paragrafoan aipatutako legea indargabetu zen Arriskutasunari eta Birgaitzeari buruzko abuztuaren 4ko 16/1970 Legea indarrean sartzearekin batera. 16/1970 Legeak ez zuen homosexualak izatea zigortzen, “ekintza homosexualak” burutzea baizik, berauek burutzen zituenari segurtasun neurriak ezarriz, erakunde espezializatuetan “berrezi” eta “birgizarteratu” ahal izateko (Abuztuaren 4ko

16/1970 Legea). Nahiz eta legeak adierazi haren helburua birgizarteratzea zela, kasu honetan ere, legearen izaera zigortzaile argia agerian geratu zen. Horren isla da, esaterako, kasu askotan segurtasun neurriak betetzeko epaileek ez zutela zentro espezializatuetara jo, espetxeetara baizik, homosexualek kartzela zigorrak jasan behar izan zituztelarik (Monferrer Tomás, 2003: 185).

Lege horiek homosexualak eta “ekintza homosexualak” burutzen zituztenak arriskutsutzat kontsideratzen zituztenez, estigma homosexuala areagotu zuten³⁰, gizarteak pertsona homosexualak gutxiestea eragin zuelarik. Baina legea ez zen homosexualitatea jazartzen zuen bakarra, gizartean gertatzen zenaren isla baitzen, adibidez, medikuntzaren arabera homosexualak gaixoak ziren, erlijioarentzat, aldiz, bekataria (Monferrer Tomás, 2003: 187).

1954ko uztailaren 15eko Alfer eta Gaizkileei buruzko Legea eta 1970eko Arriskutasunari eta Birgaitzeari buruzko Legea LGTBI+ kolektiboko pertsonetatik homosexualei bakarrik aplikatzen zitzaizela suposatzen bazen ere, homosexuala izateagatik edo “ekintza homosexualak” burutzeagatik, lege horiek homosexual eta transei aplikatu zitzaizkien. Izan ere, pertsona transak homosexualtzat hartzen zituen legeak (Vallejo, 2018a, 2018d). Lesbianak, aldiz, ospitale psikiatrikoetara eta konbentuetara eramana izaten ziren, garai hartako matxismoa hain zen handia zeinen haien sexualitatea ezkutuan zegoen, legeak zuzenean jazargarritzat ere ez zituztelarik hartzen (Peribañez Blasco, 2019: 440; Vallejo, 2018a, 2020).

1975. urtean, diktadorea hil ondoren, espainiar estatua demokraziara bidea hartzen hasi zela zirudien, horren adibide da 46/1977 Amnistia Legea. Lege horrek 1976ko abenduak 15a baino lehen intentzionalitate politikoagatik delitu edo faltak burutu izanagatik kartzelaratuak izandakoak amnistiatu zituen (Urriaren 15eko 46/1977 Legea). Baina lege hori ez zitzaien preso sozialei aplikatu, zeintzuen artean homosexual eta transak zeuden (Vallejo, 2018a; Vallès Muñío, 2017: 10).

Urte batzuen buruan Arriskutasunari eta Birgaitzeari buruzko Legea eta bere Erregelamendua aldatzen zuen 77/1978 Legeari esker, “ekintza homosexualak” burutzea arriskutsua kontsideratzen zuen kategoria erabiltzeari utzi zitzaion. Hots, Arriskutasunari eta Birgaitzeari buruzko 16/1970 Legeko 2.3 artikulua, ekintza

³⁰ Horri buruz gehiago jakin nahi izanez gero ondorengo artikulura jo: Monferrer Tomás, J. M. (2003). La construcción de la protesta en el movimiento gay español: la Ley de Peligrosidad Social (1970) como factor precipitante de la acción colectiva. *Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, 102, 171-204.

homosexualak burutzea arriskutsu kontsideratzen zuena, indargabetu zen, jarduera horiek burutzen zituztenei segurtasun eta errehabilitazio neurriak ez zitzaizkielarik aplikatu beharko (Abenduaren 26ko 77/1978 Legea; Terradillos Basoco, 2020: 80)

. Indargabetze horrek aurrera pauso bat zirudien arren, errealitatea bestelakoa zen. Esaterako, pertsona homosexual eta transak kartzelaratuak izaten jarraitu zuten eskandalu-publikoaren kontrako delitua leporatuz, laurogeigarren hamarkadaren amaieran Zigor Kodetik tipo hori kendu zen arte (González Ibañez, 1988; Vallejo, 2018a).

LGTBI+ kolektiboaren aurkako jazarpenarekin amaitzeko beste pausu bat 1983. urtean eman zen. Ordura arte pertsona trans askok sexu-aldaketa kirurgia burutzea debekatuta zegoenez, kirurgia horiek klandestinitatean egiten zituzten, ez zirelarik baldintza onetan egiten (Vallejo, 2019). Adiz, 1983. urtean Zigor Kodeari egindako aldaketan, 428. artikuluari gehitutako paragrafo bati esker, sexu-aldaketa kirurgikoa egitea debekatuta egoteari utzi zitzaion (Ekainaren 25eko 8/1983 Legea).

Hamarkada berean, 1987. urtean, Auzitegi Gorenak lehenbizikoz onartu zion emakume trans bati Erregistro Zibilean haren sexua aldatzeko aukera. Hori aurrera pauso bat zela bazirudien ere, Auzitegi Gorenaren arabera, nahiz eta erregistroan sexua aldatu, emakume horrek ez zituen izango transa ez zen emakume batek zituen eskubide berberak egintza edo negozio juridiko zehatz batzuk burutzeko. Adibidez, ez zuen izango sexu legal ezberdineko pertsona batekin ezkontzeko aukerarik (KA uztailaren 2ko 4665/1987 epaia).

Baina erregistro zibilean pertsona baten sexua aldatu ahal izateko baldintza batzuk bete behar ziren jurisprudentziak eskatzen zuen lez. Hau da, eskatzailearen sexua erregistro zibilean aldatzeko hark tratamendu hormonal eta sexu-aldaketa kirurgia burutua izan behar zuen (De La Iglesia Monje, 2008). Hamarkada berean, 1989an Europako Parlamentuak Europar Batasuneko estatu kideei dei egin zien pertsona transak babesteko neurriak hartzeko, horien artean egonik, esaterako, haien tratamendu psikologiko edo kirurgikoaren gastuak Gizarte Segurantzak ordaintzea (Europako Parlamentuaren 1989ko irailaren 12ko epaia).

Dena den, egungo Zigor Kodea heldu arte itxaron behar izan zen esparru horretan zertxobait aurreratu zen arte. Izan ere, 1995. urtean Zigor Kodean egindako erreforman orientazio sexuala edo sexua atxikitu ziren kode horretako 22.4 artikuluko astungarri orokor eta gorroto diskurtsoa zigortzen zuen 510. artikuluko egoeretara. Hala

ere, identitate sexualari ez zitzaion aipamenik ere egin. Bestalde, erreforma berean Arriskutsutasunari eta Gizartean Birgizarteratzeari buruzko 16/1970 Legea guztiz indargabetu zen.

Gizarteak poliki-poliki berdintasunera bidean aurrera egin zuen. Horren adierazgarri da nola 10 urte pasa ondoren, 2005ean, uztailaren bateko 13/2005 Legearen bidez, Kode Zibilaren egindako aldaketari esker, sexu bereko pertsonen ezkontzeko aukera eman zitzaion, sexu ezberdineko ezkontzek dituzten betekizun eta ondore berberekin.

Zorionez, bi urte pasa eta gero, pertsonen sexuari buruzko erregistro-aipamenaren zuzenketa arautzen zuen martxoaren 15eko 3/2007 indarrean dagoen legeari esker, zuzenketa hori egiteko baldintzak aldatu ziren. Lege horren arabera, sexuari buruzko erregistro-aipamena aldatzeko aukera izango dute espainiar naziokotasuna duten eta horretarako gaitasun nahikoa duten adinez nagusikoek, baldin eta ondorengo baldintzak betetzen badituzte: mediku edo psikologo batek haren genero-disforia diagnostikatu eta gutxienez bi urtez tratamendu hormonal jaso izana (Martxoaren 15eko 3/2007 Legea). Hots, dagoeneko ez dago sexu-aldaketa kirurgia egin beharrik. Hala ere, erregistro-aipamenaren zuzenketa egin ahal izateko, hau da, pertsona transen identitatea onartzen hasteko, osasunarentzat kaltegarria izan daitekeen tratamendu hormonal (Guerrero-Fernández et al., 2015: 49) eta psikologo edo mediku baten genero-disforia diagnostikoa izateko betebeharra dute pertsona transek, lege horren arabera.

2009 urterako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko Abenduaren 23ko 2/2008 Legeak, apirilaren 17ko 710/2009 Errege Dekretuak garatuak, haren 18. artikuluan, ezarri zuen kalte-ordainak emango zitzaizkiela homosexualak izateagatik 1954ko uztailaren 15eko Alfer eta Gaizkileei buruzko Legea eta 1970eko Arriskutasunari eta Birgaitzeari buruzko Legea aplikatuz barneratze neurriak jasan zituzten pertsonen. Pertsona homosexualak arriskutsu kontsideratzen berauek LGBTIfobia delituengandik babestera pasatzeaz gain, egindako kaltea nolabait erreparatzea bilatzen zen. Izan ere, mentalitate aldaketa dela eta ulertezina suertatzen da gaur egun pertsona bat bisexualak izateagatik "berrezi" behar izatea.

Gizartea eta Zigor Kodea pixkanaka jende zisgenero heterosexualaz gain, beste era bateko pertsonak zeudela barneratzen hasi zirela nabari zen. Arean ere, 2010ean Bartzelonan lehenengoz gorroto delituen arloko Fiskaltza sortzeaz gain (López Ortega,

2016: 142), Kode hartan egindako erreformaren bidez identitate sexuala³¹ atxikitu zen Zigor Kodeko 22.4 artikuluko supostuetara (Ekainaren 22ko 5/2010 Lege Organikoa). Dena den, 2015era arte itxaron behar izan zen, egoera pertsonal hori Zigor Kodeko 510. artikuluan atxikitu zen arte (Martxoaren 30eko 1/2015 Lege Organikoa). Hots, oso urte gutxi pasa dira kode hori pertsona transak gorroto delituetatik babesten hasi zenetik³². Agerian geratzen delarik gorroto delituen kontrako tipo penalak ezartzean izandako koordinazio falta, duela gutxira arte pertsona transen ikusezintasun eta babesgabezia mantenduz (Landa Gorostiza, 2012: 303).

Estatu mailan zenbait lege onartu direla ikusi da, eta bide hori jarraituz, autonomia-erkidego batzuek ere LGBTBI+ kolektiboak pertsona zisgenero heterosexualen eskubide berdinak izatearen aldeko apustua egin dute, kolektibo hori ez baztertzeari buruzko legeak onartu dituztelarik³³. Lege horiei esker, Euskadin eta Katalunian, esaterako, mediku edo psikologiko baten genero-disforia diagnostiko eta tratamendu medikurik egiteko beharrik gabe sexuari buruzko-erregistro aipamena aldatzea onartzen da, pertsona transenganako errespetua erakutsiz (Ekainaren 28ko 14/2012 Legea; Urriaren 10eko 11/2014 Legea). Izan ere, genero zehatz bat izateko, bostgarren atalean aztertuko den bezala, genero eta sexua gauza ezberdinak direnez gero, ez da beharrezkoa osasunarentzat kaltegarria den tratamendu bat jasan edo mediku batek pertsona bakoitza zer den esatea. Hala ere, arestian aurkeztutako martxoaren 15eko 3/2007 Legearen arabera, erregistro-aipamenaren zuzenketa burutzeko hori eskatzen jarraitzen da.

³¹ Garrantzitsua da orientazio eta identitate sexuala kontzeptuek zerri egiten dioten erreferentzia ulertzea, hori dela eta, bostgarren atalean horien esanahian sakonduko dut.

³² Orientazio sexuala egoera pertsonalak ez baitzituen transen kontrako gorroto delituak barnebiltzen (Mir Puig, 2011: 640). Intersexualitateari dagokionez, berriz, bostgarren atalean azalduko dudan lez, sexuarekin zer ikusia duen kontzeptu bat dela esan daiteke. Hala ere, doktrina aztertu ondoren, ikusi dut ez dela argitzen intersexualitatearen kontrako gorroto delituak, Zigor Kodeko 22.4 eta 510. artikuluetako, zein egoera pertsonalek barnebiltzen dituen (Arcópolico elkarteko zuzenbide saila, komunikazio pertsonala, 2020ko abenduaren 3an). Halaber, jurisprudentzia arakatuz gero, ikus daiteke ez dagoela artikuluko horietakoren bat intersexualitatearen kontrako gorroto delitu kasuren baten aplikatu duen epairik. Beraz, Zigor Kodeko 22.4 edo 510. artikuluek era horretako *hate crime*-ak barnebiltzen dituztenez, baina ez dagoenez argi zehazki zein egoera pertsonalek, ulergarriagoa suertatzeko, intersexualitatea orientazio eta identitate sexualak barneratzen duela adieraziko dut, nahiz eta ez duen zertan hala izan behar. Gainera, aurrez adierazi dudana bezala, Observatorio Madrileño contra la Homofobia, Transfobia y Bifobia-ko zuzenbide sailaren arabera, pertsona intersexualek jasandako gorroto gertakariak haiengan antzemandako orientazio edo genero adierazpenetatik burutzen dira.

³³ Lege horiek onartu dituzten autonomia erkidegoak ondorengoak dira: Nafarroa, Euskal Autonomia Erkidegoa, Galizia, Andaluzia, Katalunia, Kanariak, Extremadura, Madril, Murtzia eta Balehar Uharteak.

Lege horiek batuz eta Osasunaren Mundu Erakundeak (OMS) 2018an transexualitatea buru-gaixotasuna dela kontsideratzeari utzi ziola kontuan izanik, estatu mailan lege trans baten beharra ikusi da, LGTBI+ pertsonen eskubideak Espainia osoan babestuko dituen, ez egun gertatzen den bezala, autonomia-erkidego batzuetan bakarrik (Peribañez Blasco, 2019: 589). Lege horrek trans identitateen despatologizazioa eta genero autodeterminazio askea eskatzen du, beste gauza batzuen artean. Arian ere, horrek pertsona transak gaixotzat ez hartzea bermatuko luke, psikologo edo mediku baten diagnostiko eta tratamendu mediku baten beharrik gabe haien identitatea onartuz lege horren aurreproiektuaren zirriborroa aurkeztu izanak gaur egun horri buruzko eztabaida pil-pilean egotea ekarri du, beraz, aurrera ateratzen den edo ez ikusi beharko da.

Azaldu dudana bezala, 1954tik gaur egun arte, legediak zenbait aldaketa jasan ditu, baina ez dira besterik gabe egindako aldakuntzak izan, kontestu historiko eta mugimendu batzuekin lotuta baitaude. Hortaz, merezi du, ginetik bada ere, haien genealogia aztertzea, legearen zergatia eta zein nahi sozialei erantzuten dion ulertzeko.

1954ko Alfer eta Gaizkileei buruzko Legeak homosexualitatea arriskutsua zela adierazi zuenean Frankoren diktaduran³⁴ murgilduta zegoen Espainia, Gerra Zibilaren amaieratik Francisco Franco 1975ean hil zenera arte iraun zuena. Bertan, Frankismoan moral kristaua inposatzen zen, moral horretatik irtetzen zena jazarriz, homosexualitatea, adibidez (Ysàs, 2008: 167).

Diktaduraren aurka hainbat mugimendu agertu ziren, hala nola langile³⁵ (Ysàs, 2008: 175) edo ikasle mugimendua³⁶ (Carrillo-Linares, 2006: 159). Baina 60. hamarkadaren amaiera eta 70. hamarkadaren hasieran, Frankismoaren estruktura politikoen kontrako modernizazio ekonomiko eta soziala garatzen hasi zirenean, indar gehiagorekin agertu ziren mugimendu horiek, baita beste batzuk ere (Monferrer Tomás, 2003: 182).

³⁴ Diktadura: Indar edo indarkeriaren bidez botere guztia pertsona, talde edo erakunde baten biltzen duen eta giza eskubide eta norbanakoaren askatasunak zapaltzen dituen erregimen politikoa da (RAE, 2014a). Nire itzulpena jatorrizkotik abiatuta: <<*Régimen político que, por la fuerza o violencia, concentra todo el poder en una persona o en un grupo u organización y reprime los derechos humanos y libertades individuales.*>>.

³⁵ Langile mugimenduari buruz gehiago jakin nahi izanez gero ondorengo artikulura jo: Ysàs, P. (2008). El movimiento obrero durante el franquismo. De la resistencia a la movilización (1940-1975). *Cuadernos de Historia Contemporánea*, 30, 165-184.

³⁶ Ikasle mugimenduan gehiago sakondu nahi izanez gero hurrengo artikulura jo: Carrillo-Linares, A. (2006). Movimiento estudiantil antifranquista, cultura política y transición política a la democracia. *Revista de Derecho Penal y Criminología*, 10 (10), 47-72.

Garai hartan, itsasoaren beste aldean, Estatu Batuetan, poliziak LGTBI+ pertsonen aurka egindako zenbait sarekaden ondoren, 1969ko ekainaren 28an Stonewall³⁷ izeneko tabernan zeudenek, hots, LGTBI+ kolektiboko pertsonak, poliziei aurre egiteari ekin zioten, haien eskubideak aldarrikatuz. Istiluek hiru egunez iraun zuten (E. A. Armstrong eta Crago, 2006: 724). Harrezkero, gay mugimendua³⁸ azkar zabaldu zen Estatu Batuetan zehar, egun nazioartean erreferente bihurtu delarik. Hori dela eta, urtero, ekainaren 28an, LGTBI+ eskubideen aldeko manifestaldiak egiten dira munduan zehar (Enguix Grau, 2009: 1).

Stonewallen sarekadak gertatzen ziren garaian, horren kontrako borrokaren indarra aprobetxatuz, Francesc Francino eta Armand de Fluvià aktibistak, beste lagun batzuekin batera, klandestinitatean biltzen hasi ziren 1970eko Arriskutasunari eta Birgaitzeari buruzko Legea izango zenaren kontra zerbait egiteko asmotan. Horretarako, Arcadie aldizkari frantsesari laguntza eskatu zioten, eta Gorteetako prokuradoreei lege horren aurkako gutunak bidaltzeari esker, lehenengo garaipena lortu zuten: 1970ko lege hartan homosexualitatea zigortu beharrean “ekintza homosexualak” zigortzea (Monferrer Tomás, 2003: 189; Vallejo, 2018a).

Lege horrek eta Stonewalleko iskanbilen oihartzunak espainiar estatuan gay mugimendua sortzea eragin zuen. Horri esker, gay aktibisten artean formakuntza prozesu bat hasi zen, kontzientzia kolektiboa sortu nahian, pertsona homosexualak bizitzen ari ziren egoeraz jabetzeari ekin ziotelarik. Lehendabizi, lagun talde txikietan ezkutuan batzen ziren, eta poliki-poliki, klandestinitatean bazen ere, Movimiento Español de Liberación Homosexual garatzen hasi zen Katalunian (Monferrer Tomás, 2003: 188-189).

Francoren heriotzak, 1975an, are gehiago piztu zuen LGTBI+ pertsonak bizi zuten zapalkuntzari aurre egiteko grina. Urte berean, aurreko paragrafoan aipatutako mugimenduak Front d'Alliberament Gai de Catalunya (FAGC) izena hartu zuen. Harrezkero, 1976 eta 1977an beste zenbait elkarte ikusgai bihurtzen hasi ziren espainiar estatuan zehar, 1980an Coordinadora de Frentes de Liberación Homosexual del Estado Español-era batu zirenak (Enguix Grau, 2016: 763-764; Vallejo, 2018a, 2018c). 1977.

³⁷ Stonewall-eko altxamenduari buruz gehiago jakin nahi izanez gero ondorengo liburura jo: Carter, D. (2004). *Stonewall: the riots that sparked the gay revolution*. St. Martin's.

³⁸ Garai hartan horrela deitzen zitzairen mugimendu horiei, homosexualitate edo gay terminoa erabiliz, lesbiana, bisexual eta transen ikusezintasuna areagotuz (Peribañez Blasco, 2019: 2020), baina gaur egun LGTBI+ mugimendua esaten zaio.

urtean, esaterako, EHGAM sortu zen Euskal Herrian, LGTBI+ kolektibokoa izateagatik edozein diskriminazioaren aurka borrokan diharduen elkarte (EHGAM, 2014).

Urte berean, FAGC-ekin batera aktibismoan zebiltzan lesbiana batzuek elkarteetan jasaten zuten sexismo eta misoginia kritikatu zuten, lesbiana batzuk gai aktibistengandik aldentuta antolatzen hasiz, feminista erradikalekin elkartuz. Izan ere, haiek ere emakume izateagatik diskriminazioa pairatzen zuten eta feminista horiekin gehiago identifikatzen hasi ziren (Vallejo, 2018d).

Dena den, LGTBI+ elkarte guztiek Arriskutasunari eta Gizartean Birgaitzeari buruzko Legea indargabetzea nahi zuten. Hori lortu nahian, FAGC-ek, Bartzelonan, lesbiana, trans eta homosexualen artean, lehenengo manifestazioa antolatu zuen. Bertan, 1977ko ekainaren 26an, askatasun sexuala aldarrikatzeko 5.000 pertsona elkartu ziren, lehenengo ilaretan, batez ere emakume transak egonik (Enguix Grau, 2017: 165; LAMBDA, n.d.; Petit, 2003: 28).

Geroztik, Bartzelonan egindako manifestaldiak zuen helburu berarekin, Espainiako hiriburu ezberdinetan ere manifestazioak egin ziren, hala nola Madril, Bilbo edo Sevillan (Enguix Grau, 2016: 763). Halaber, 1979an Errenteriako taberna batean polizia batek Francis trabestia hil izanak, Euskadiko kolektibo horren eskubideen aldeko mugimendua indartu zuen, manifestaldi ezberdinak egin zirelarik bertako hainbat hiritan (Berasaluce, 2019) Horri eta presio sozialari esker, 1970eko Arriskutasunari eta Birgaitzeari buruzko Legeak “ekintza homosexualak” burutzea arriskutsua kontsideratzen zuen kategoria erabiltzeari uztea eta 1980an FAGC legeztatzea lortu zen (Petit, 2003: 30).

Bi lorpen horiekin elkarte horietako aktibista batzuk LGTBI+ kolektiboaren eskubideen aldeko borrokan dena lortua zegoela pentsatu zuten eta desmobilizazio prozesu bat egon zen. Egoera hori horrela deskribatu izan da modu grafiko batean: elkarteak husten eta diskotekak betetzen hasi ziren (Vallejo, 2018a). Baina 80. hamarkadan aktibismoaren jaitsiera hori aldatuko zuen zerbait gertatu zen.

Espainian 1981. urtean diagnostikatu zen lehenengo SIDA kasua (Hernández Martín, 2009: 242) hamarkada horretan 2.900 pertsona hil zirelarik VIH eta SIDA-ren ondorioz (Ministerio de Sanidad de España, 2019: 8). Garai hartan ez zegoen gaixotasun hark zeukan garrantziaren kontzientziarik, eta pertsona heterosexualak gaixotasun hartatik aldentuta zeudela uste zen (Hernández Martín, 2009: 242). Hainbat faktorek eragin zuten hori pentsatu eta estigma homosexuala areagotzea, adibidez, lehenengo SIDA kasuak gizon homosexualetan diagnostikatu izana eta gaixotasunari hasieran gay-

related immune deficiency, homosexualen lotutako immunoeskasia, deitza (Altman et al., 2012: 439; Vallejo, 2018b).

SIDA-ren krisiak, LGTBI+ kolektiboaren barne eztabaida sortu zuen, ez baitzegoen argi gaixotasun horri kolektibo bezala aurre egin behar zitzaion. Izan ere, LGTBI+ mugimenduak SIDA kanpainak egiteak pertsona homosexualen irudia are gehiago estigmatizatuko zuela uste zutenak zeuden, eta horrek FAGC-en haustura ekarri zuen (Vallejo, 2018c). Hala ere, azkenean, gaixotasunari aurre egiteko beharraren ideia nagusitu zen LGTBI+ kolektiboan. Hori posible egin eta lesbiana, gay trans eta bisexualen berdintasunaren alde lan egiteko 1986an elkarte ezberdinak sortu ziren, hala nola COGAM edo LAMBDA. Errebindikazioa beste era batean planteatu zen, COGAM-ek, esaterako, sexu-transmisioko infekzio eta diskriminazio esparruan asistentzia eskaini eta aldarrikapen politikoak egin zituen, baita LGTBI+ komunikabideen aintzindari izan ere (COGAM, 2021).

LGTBI+ elkarteek VIH eta SIDA-ren aurka borrokan egindako lanak lehenengo aldiz administrazio publikoa elkarte horiei baliabideak ematen hastea ahalbideratu zuen, indar gehiago eskuratuz. Halaber, SIDA-ren krisiak bikote homosexual, bisexual eta lesbianen eskubide falta³⁹ agerian utzi zuenez, bi gizon eta bi emakumeren artean ezkontzeko eskubidea aldarrikatzen hasi ziren LGTBI+ elkarteak (Vallejo, 2018c, 2018d).

1990. urtea LGTBI+ kolektiboarentzat garrantzitsua izan zen, arean ere, urte hartan OMS-ek homosexualitatea gaixotasun mental bat bezala hartzeari utzi zion. Bestalde, bi urte geroago, 1992an, Federación Estatal de Gais y Lesbianas sortu zen, gaur egun FELGTB deitzen dena. Hamarkada hartan elkarte horretara espainiar estatuko talde ezberdinak batzen hasi ziren, mugimenduaren indarrak bertan batuz (FELGTB, 2021).

Espainiako gizartea, pixkanaka bazen ere, aldatzen ari zen, baina bada aipatzea merezi duen gertakizun bat. 1991ean 16 eta 18 urte bitarteko 7 gaztek emakume trans bat, transa izateagatik, barre eta irain artean ostikoka eta makila batekin hil zuten. Erahilketa hori inflexio puntu bat izan eta gizartea eraso horien kontra agertu zen (Quilez Lázaro, 2016; Vallejo, 2019). Espainia kontestu horretan egonik orientazio sexuala gehitu zen Zigor Kodeko 22.4 eta 510. artikuluetara, sexu-joeraren kontrako gorroto

³⁹ Bikote lesbiana, bisexual edo homosexualen ezkontzeko aukerarik ez zutenek, nahiz eta urte askotan zehar batera bizi, bikotekideetako bat hilez gero, besteak ez zuten haren jaraunspena jasotzeko aukerarik, esaterako.

delituak zigortzen hasi zirelarik. Hala ere, kode horrentzako pertsona transak existitzen ez zirela zirudien, identitate sexuala ez baitzen tipo horietan atxikitu.

Zigor Kodea erreformatu zen urte berean aktibismoa festarekin batzeko ideia izan zuen FELGTB-k. Hori aurrera eramanez, 1996an Madrileko LGTBI+ harrotasunaren manifestaldi ezagunean, lehenbizikoz, karroza bat irten zen. Harrezkero, urtez-urte gero eta jende gehiagok hartu zuen parte manifestazioan, jende zisgenero heterosexuala ere bertaratuz (Enguix Grau, 2017: 167). Horrek ere agerian utzi zuen LGTBI+ eskubideen alde zeudenak gero eta gehiago zirela. Dena den, legea aldatu ahal izateko orientazio eta identitate sexualaren berdintasunaren alde borrokan ari zen mugimendua politikan sartzea beharrezkoa zela ikusi zen. Hori dela eta, aktibista ezberdinak politikan barneratu ziren 2003an, esaterako, Pedro Zerolo, FELGTB-ko zuzendari izan zena, Madrileko udaletxeko zinegotzi izatera pasa zen (Vallejo, 2018b).

LGTBI+ kolektiboko pertsonak politikan barneratuta egoteari eta elkarte ezberdinek egindako presioari esker, XXI. mendeko lehenengo hamarkadan kolektibo horrek hainbat lorpen izan zituen; sexu bereko pertsonen arteko ezkontzen onartzea, sexuari buruzko erregistro-aipamenaren zuzenketa arautzen zuen legearen onspena eta 2010ean Zigor Kodeko 22.4 artikuluko egoera pertsonalei identitate sexuala gehitzea, besteak beste.

Hala ere, LGTBI+ pertsonak diskriminazioa jasaten jarraitzen zuten, baita gaur egun ere, hirugarren atalean ikusi ahal izan den bezala. Horregatik, horren aurka borrokatzen duten elkarteek berdintasuna lortzeko lanean jarraitzen dute, baita urtero LGTBI+ harrotasunaren manifestaldiak antolatzen ere. Dena den, manifestazio horiek LGTBI+ kolektiboarengandik kritikatuak izan dira, protesta horien komertzializazioa dela eta izaera errebindikatiboa galtzen duelakoan⁴⁰. Horregatik, manifestaldi alternatiboak egin ohi dira, adibidez, Bartzelona eta Madrilan, ikuspegi queer eta antikapitalista batetik (Enguix Grau, 2017: 167).

LGTBI+ elkarten lanak eta LGTBIfobiak eragindako gorroto delituak ezagutzera emateak gizartea orientazio eta identitate sexualagatiko diskriminazioaz kontzienteago izatea ekarri du. Hala ere, administrazio eta legeak haur transen egoerak barne hartzen ez dituela eta haur haien babesgabetasuna ikusirik, erakunde ezberdinak sortu dira estatuan zehar, haur eta nerabe transek haien identitatea aintzatetsia izan dezaten, hala

⁴⁰ Horri buruz gehiago jakin nahi izanez gero ondorengo artikulura jo: Enguix Grau, B. (2017). Protesta, mercado e identidad en las celebraciones del Orgullo LGTB en España. *Convergencia Revista de Ciencias Sociales*, 73, 165-186.

nola Chrysallis, 2013an, edo Arelas eta Naizen, 2015ean (ARELAS, 2021; Chrysallis, 2021; Naizen, 2021).

Gizarteak bizi izan duen aldaketarekin, Zigor Kodean 2015ean identitate-sexualaren kontrako gorroto diskurtsoa zigortzea lortu zen, baina oraindik ere LGTBI+ kolektiboaren berdintasun osoa erdiesteko lan egin beharra dago. Hori erdiesteko, gaur egun, batez ere sare sozialak erabiltzen dira, hainbat aktibistek horien bidez LGTBI+ kolektiboaren aldarrikapena egiten dutelarik (Vallejo, 2018d).

Atal honetan agerian geratu da LGTBI+ kolektiboak historian zehar heteropatriarkatuaren ondorioz, genero eta sexualitateari buruzko kanon zorrotzen bidez LGTBIfobia barneratuz, gizartearen eta ordenamenduaren aldetik jasandako mespretxu eta jazarpena (De Pablo Serrano, 2019: 351-352). Hori dela eta, elkarteek izan duten papera funtsezkoa izan da, haien eguneroko lanari esker, LGTBI+ kolektiboaren eskubideen aitortzea eta aniztasun politikak ezartzeko, nahiz eta oraindik ere badagoen zer erdietsi (Martín Aragón, 2019: 14). Izan ere, mugimendu sozialek, LGTBI+ aktibistek bultzatutakoek, esaterako, iritzi publikoa aldatzea lortzen dute. Eta pentsaera zenbat eta lehenago eraldatu, orduan eta arinago erdietsiko da lesbiana, gay, trans, bisexual eta intersexualen balio soziala (Honneth, 1997: 156).

5. Orientazio eta identitate sexual egoera pertsonalen esanahia

Gorroto delituak Zigor Kodean zein eratan arautzen diren aztertu dut arestian. Bertan ikusi da Kode horretako 22.4 eta 510. artikuluetan orientazio eta identitate-sexuala terminoak erabiltzen direla. Beraz, horien esanahia zein den eta zerri erreferentzia egiten dieten jakitea garrantzitsua denez gero, aurreko atalean adierazi dudana lez, atal honetan izango dut horretan sakontzeko beta. Izan ere, kontzeptu horiei buruzko ezagutza eta jakin-min falta altua da (Peribañez Blasco, 2019: 565), eta hori arriskutsua izan daiteke, termino zehatza ez erabiltzeak pertsona batzuk gutxiestea baitakar (Peribañez Blasco, 2019: 44-45). Esaterako, artikulua horietan identitate sexuala ez barneratzeak pertsona transak LGTBIfobia delituetatik babes gabe uztea ekarri zuen (Mir Puig, 2011: 640). Halaber, genero, genero identitate eta sexu kontzeptuaren esangurak azalduko ditut, termino horien artean ezberdintasunak baitaude.

Zigor Kodean egoera pertsonal horiek barneratzeko ordena jarraituz, lehendabizi orientazio sexual terminoa aztertzen hasiko naiz. Kodean zehar ez da sexu-joera zer den azaltzen, ezta zerri erreferentzia egiten dion adierazten ere. Hori dela eta, lehenik

eta behin Fiskaltzaren interpretazioa aintzat hartuko dut. Estatuko Fiskaltza Nagusiak maiatzaren 14ko 7/2019 Zirkularrean ECRI-ren 15. gomendiora, gorroto diskurtsoaren kontrako borrokari buruzkora, eta memorandum argitzailera jotzen du, bertako definizioa jasoz. Bertan, ECRI-k orientazio sexuala ondorengo eran definitzen du:

<<“Orientazio-sexualak” erreferentzia egiten dio pertsona bakoitzak berea ez den beste genero bateko edo bere genero bereko pertsonetikiko edo genero bat baino gehiagorekiko erakarpen emozional, afektibo eta sexual sakona sentitzeko duen gaitasuna, baita pertsona horiekin harreman intimoak eta sexualak izateko gaitasuna ere.>>⁴¹

Definizio horrek, PERAMATO MARTIN edo AGUILAR GARCÍA bezalako juristek ere erabiltzen dutenak, ez ditu aintzat hartzen beste pertsona batzueganako erakarpen afektibo, emozional eta sexuala sentitzeko gai diren, baina, haien egoera pertsonal edo fisikoa dela eta, harreman intimo eta sexualak izateko gaitasuna ez duten pertsonak. Hala ere, orientazio sexuala definitzeko orduan baldintza hori barneratzen ez dutenak ere badaude. Adibidez, doktrinaren beste atal baten, esaterako, PERIBAÑEZ BLASCOren, eta Amerikako Psikologia Elkartearen arabera, sexu-joerak erreferentzia egiten dio pertsona batek beste batekiko edo batzuekiko duen sexu eta emoziozko erakarpen ereduari. Beste era batera esanda, orientazio-sexuala pertsona bakoitzak beste pertsona batzuekin afektibo eta sexualki erlazionatzeko duen preferentzia edo lehentasuna da (Jurčić et al., 2018: 11; Peribañez Blasco, 2019: 441).

Gizaki bakoitzak bizi duen erakarpen horren arabera sexu-joera era ezberdinetakoa izan daiteke, hala nola homosexuala, bisexuala edo heterosexuala (Paz Galupo et al., 2014: 463). Horregatik, Zigor Kodean orientazio sexuala aipatzen denean, sexu-joera guztiak hartzen dira kontuan (Laurenzo Copello, 1996: 247).

Bigarrenez, identitate sexuala zer den eta zerri erreferentzia egiten dion aztertzeari ekingo diot. Termino hori Zigor Kodeak LGTBI+ kolektiboa gorroto delituetatik babesteko erabiltzen duen beste egoera pertsonala da. Kasu honetan ere, orientazio sexualarekin gertatzen den bezala, Zigor Kodean ez da identitate sexuala zer den azaltzen. Hori dela eta, Fiskaltzak, sexu-joeraren esangura ezagutzeko erabiltzen duen zirkular berean, identitate-sexuala nola interpretatzen den erreparatuko dut.

⁴¹ Nire itzulpena, jatorrizkotik abiatuta: <<“*orientación sexual*” se refiere a la capacidad de cada persona de sentir una profunda atracción emocional, afectiva y sexual por personas de un género diferente al suyo, o de su mismo género, o de más de un género, así como a la capacidad mantener relaciones íntimas y sexuales con estas personas.>>.

Zirkular horretan, identitate sexuala zer den azaltzeko orduan ECRI-k aurrez aipatutako gomendioan genero identitateari ematen dion definizioa erabiltzen du. Bertan ikus daiteke Fiskaltzak genero identitate eta sexu-identitatea sinonimotzat hartzen dituela. Era horretan, identitate sexuala norbera sexualki identifikatzen den era dela adieraziz, jaiotzaz duen sexu biologikoa aintzat hartu gabe. LGTBI+ pertsonen berdintasunerako ekainaren 19ko 8/2017 Nafarroako Lege Foralak ere, adibidez, identitate sexuala horrela definitzen du: sexu zehatz bat izatearen aintzatespena.

Zigor Kodeak identitate sexuala babesten duenean jende transari babesa ematen dio (Mir Puig, 2011: 640). Dena den, nahiz eta ohikoa ez izan, pertsona baten identitate sexualak sexu biologikoarekin bat egiten badu eta horri buruzko aurreiritziengatik gorroto delituren bat burutuko balitz Kodeak era berean babestuko luke (Díaz López, 2012: 323). Nahiz eta Doktrinak hori adierazi, "Beharrezkoa al da subjektu pasiboaren egoera pertsonala frogatzea?" atalean ikusi daitekeen bezala, jurisprudentzian ez dago hain argi.

Identitate sexuala eta genero identitatea sinonimotzat hartzen dutenak badiren arren, bigarren terminoari definizio ezberdin bat atxikitzen zaio. Horregatik, genero identitatea sakonago aztertuko dut, baina, kontzeptu hori ondo ulertu ahal izateko, lehenik eta behin, generoa zer den jakitea komeni da.

Zigor Kodeak, haren 1/2015 erreforman, XXII. atarikoan, berau definitzeko garaian Europako Kontseiluaren 2011ko apirilaren 7an onartutako 210. Hitzarmena erabiltzen du, generoa ondorengo eran definituz:

<<Gizarte jakin batek emakumeengan edo gizonengan berezkotzat jotzen dituen rol, portaera, jarduera eta ezaugarriak, sozialki eraikiak.>>⁴²

Estatu Buruzagitzaren arabera ere (2014) gizarteak sortzen duen eta gizon edo emakumeengan berezkoa dela kontsideratzen duen portaera, jarduera eta rolei egiten die erreferentzia generoak. Binariotasun hori jarraituz jaiotzean pertsonaren sexu biologikoaren arabera haurra gizon edo emakume bezala hartu ohi dute instituzioek, gizarteak eta kulturak: arra bada gizon bezala edo emea bada emakume bezala gizarteratuko dutelarik (Aguilar García et al., 2015: 57), gizonengandik maskulinitatea eta emakumeengandik feminitatea esperoko delarik (Jurčić et al., 2018: 11).

⁴² Nire itzulpena, jatorrizkotik abiatuta: <<(…)los papeles, comportamientos o actividades y atribuciones socialmente construidos que una sociedad concreta considera propios de mujeres o de hombres.>>.

Aldiz, OMS-en (2018) arabera, generoa gizon eta emakumeez gain identitate ez binarioa duten pertsonentzat egokitzat hartzen diren ezaugarri, aukera eta rolek osatuko lukete, gizarteak ezartzen dituenak. Hots, genero ezberdinak existitzen dira, gizonezkoa, emakumezkoa edo ez binarioa, besteak beste. Gainera, generoa denbora eta tokiaren arabera aldatzen den kontzeptu bat da.

Genero ez binarioa duten pertsonak haien genero edo sexu identitatea gizon edo emakume kontzeptuetatik kanpo kokatzen dute, haien buruak ez binario bezala identifikatuz (Richards et al., 2016: 95). Hala ere, erregistro zibilean generoa gizon edo emakume bezala baino ezin da ezarri. Hori dela eta, munduan zehar, azken hamarkadetan, hainbat pertsonak estatu instituzioei eskatu diete, gainerako pertsonen norbere generoa onartzen zaien bezala, haien generoa ere onartzea, pertsona horiek genero ez binario bezala aintzatetsiz (Palomares García eta Rozo Ladino, 2019: 114). Badira herrialdeak genero hori aintzatesten hasi direnak, Estatu Batuak, esaterako (Basic Rights Oregon, 2017). Dena den, espainiar estatuak ez die haien generoa erregistro zibilean aldatzea onartzen.

Beraz, binarioa ez den pertsona bat ez binarioa izateagatik delitu baten biktima izan bada gorroto delitua dela kontsideratuko litzateke, delitu horrek identitate sexuala egoera pertsonalarekin bat egiten baitu⁴³. Hau da, kasu horrek Zigor Kodearen babesa izango luke. Beraz, pertsona ez binarioak egoera pertsonal horrengatik jasan ditzakeen gorroto delituengandik babesten ditu estatuak, baina, kontraesankorra badirudi ere, estatu horrek ez die pertsona horiei haien identitatea onartzen.

Errekonozimendu juridiko falta hori bizi duten pertsonengan, HONNETH-en arabera (2009), DE PABLO SERRANOK (De Pablo Serrano, 2019: 347) aipatua, mespretxu sozial sentimendua sortzen da. Hori oso arriskutsua da, izan ere, aintzatespen faltari LGTBI+ kolektiboak historian zehar jasan duen diskriminazioa gehituz, pertsona horiek gizarteak baloratzen ez dituela senti dezakete. Eta horrek diren bezalakoak izateagatik lotsatzea ekar dezake, kolektiboaren ikusezintasuna areagotuz (Honneth, 1997: 165).

Genero identitatea, berriz, pertsona bakoitzak generoa bere barnean nola sentitzen eta bizi duen litzateke (ECRI, 2016: 15). Hots, pertsona bakoitza zein generoren parte sentitzen den. Eta genero identitate hori genero adierazpenaren bidez

⁴³ Izan ere, identitate-sexuala definitzeko orduan ikusi da egoera pertsonal horrek pertsona transak barne hartzen dituela. Eta, genero-identitatearen esanahia azaltzean uler daitekeen bezala pertsona ez binarioak pertsona transak dira. Beraz, ez binarioa izateagatik delitu baten biktima izatea gorroto delituaren definizioaren barnean sartzen da.

ematen da aditzera, hau da, itxura, hizkera, interes, rol eta jarreraren bidez (Jurčić et al., 2018: 11). Argitu behar da posible dela pertsona bakoitzaren genero identitatea sexu biologikoaren arabera generoarekin bat etortzea, baina baita bat ez etortzea ere (ECRI, 2016). Pertsona baten genero identitateak jaiotzean esleitu zaion sexuarekin bat egiten badu gizaki hori zisgeneroa izango da, aldiz, ez badu bat egiten, adibidez, binarioak ez diren pertsonekin gertatzen den bezala, pertsona transa izango da.

Azkenik, komenigarria litzateke sexua zer den argi izatea. Sexua Fiskaltzaren arabera (2019) sexu biologiko bezala ulertu behar da. Hau da, sexua biologiarri lotuta dago (Aguilar García et al., 2015: 56) eta erreferentzia egiten dio gorputzeko ezaugarri batzuen, hala nola hormonien, kromosomen edo ugaltze-organoen konbinaketan, oinarritutako sailkapen sozial, legal eta biologikoari (Jurčić et al., 2018: 11). Horren arabera, pertsona ar, eme edo intersexuala izan daiteke (Aguilar García et al., 2015: 56).

Intersexual hitza erabiltzen da pertsona baten gorputzeko ezaugarriek, kromosomiko, hormonal edota anatomikoek, ez dutenean ar edo emeari buruz ematen den definizio mediko zorrotzekin bat egiten (FRA, 2015: 2). Intersexualitateari "hemafroditismo" deitzen zitzaien, 2005ean egindako Chicagoko Kongresuan, berriz, sexu garapeneko anomalia deitzea erabaki zen. Hala ere, gero eta gehiago dira SGA izendapena iraingarria eta gutxiesgarria dela kontsideratzen dutenak, Sexu Garapen Ezberdina erabiltzea proposatuz. Arian ere, izen horrek pertsona intersexualek anomaliak dituztela aditzera ematen du (Peribañez Blasco, 2019: 44-45).

Atal honetan, ikusi ahal izan da Zigor Kodeak LGTBI+ kolektiboa gorroto delituengandik babesten duela, LGTBIfobia delituak orientazio eta identitate sexuala egoera pertsonalaren bidez zigortuz. Hortaz, nahiz eta kontzeptu horiek definitzeko orduan adostasun osoa ez egon, Zigor Kodeko 22.4 eta 510. artikuluen bidez LGTBI+ kolektibo osoa barnebiltzen dela ziurta daiteke. Dena den, agerian geratzen da, Zigor Kodeak kolektibo horri geriza ematen dion arren, beste eremu batzuetan LGTBI+ kolektiboak babes falta bizi duela, adibidez, erregistro zibilean pertsona batzuen identitatea onartzen ez denean.

Halaber, askotan LGTBI+ kolektiboko pertsonengana zuzentzean erabiltzen diren hitzak iraingarri edo patologizagarriak izan ohi dira, intersexualen kasuan, esaterako. Termino horiek erabiltzea arriskutsua izan daiteke, kolektibo horrengan gaitzespena eta konfiantza falta sor dezaketelako. Hori dela eta, garrantzitsua da pertsona horiengana zuzendu, haiei buruz hitz egin edo epaitzean hitz egokiak

erabiltzea, zer esanik ez norbait gorroto delitu baten biktima izan denean. Beraz, atal honetan azaldutako kontzeptuak argi izatea komeni da (Jurčić et al., 2018: 14).

6. Orientazio eta identitate sexualaren aurkako gorroto delituei buruzko jurisprudentzia

Behin gorroto delituak arautzen dituzten artikuluetako LGTBI+ kolektiboarekin zer ikusia duten egoera pertsonalen esanahia ulerturik, arauketa hori praktikara nola eraman den ikertuko dut. Hala ere, adierazi behar dut, orokorrean gorroto delituei buruzko jurisprudentzia gutxi badago, zer esanik ez orientazio eta identitate sexualaren ingurukoari buruz.

Bi egoera pertsonal horiei buruzko jurisprudentziaren zertzelada batzuk ematea nahi banuen ere, ezinezkoa bihurtu zait. Izan ere, Zigor Kodeko 22.4 edo 510. artikulua pertsona transek bizitako gorroto delituei aplikatu dizkien Auzitegi Goren edo Probintzia Auzitegien epaiak bilatzen saiatu arren, ez dut bat ere aurkitu⁴⁴. Baina etsi beharrean, ikuspegi osoago bat eman nahian, epai horiek bilatzeko laguntza eskatu nien, esaterako, Movimiento contra la intolerancia (komunikazio pertsonala, 2021eko urtarrilaren 27an) edo Madrileko udaletxeko Unidad de Gestión de la Diversidad-i (komunikazio pertsonala, 2021eko urtarrilaren 27an). Haiek ere ez dute halako epairik ezagutzen. Hortaz, saiatu banaiz ere, jurisprudentzia hori ez dudanez aurkitu, atal hau pertsona transek bizi duten ikusezintasunaren isla izan beharko da, ezingo dudalarik ondorioztatu Zigor Zuzenbideak era egokian babesten dituen identitate sexualaren kontrako gorroto delituak.

Jurisprudentzia falta horrek, pertsona transei haiek jasandako gorroto delituak salatzeak ezertarako balio ez duenaren sentimendua, lan honen aipatu dudana bezala zifra beltzaren arrazoiertako bat dena, indartu dezake. Beraz, egokia izan liteke, adibidez, Bartzelonako Fiskaltza Probintzialeko Gorroto Delituen eta Diskriminazioaren zerbitzuko fiskal koordinatzaileak dioen lez, 2009an, Landa Gorostizak (Landa Gorostiza, 2012: 346) aipatua, eragile juridikoei *hate crime*-n arloan delitu horiek jazartzeko garrantziaz konturatzea lortuko duen formakuntza egoki bat ematea⁴⁵.

⁴⁴ Gogoan izan pertsona intersexualen kasuan berdina gertatzen dela.

⁴⁵ Horrekin bat dator Arcópoli elkarteko zuzenbide saila (Komunikazio pertsonala, 2021eko urtarrilaren 27an).

6.1. Zigor Kodeko 22.4 artikuluari buruzko jurisprudentzia laburra

Jurisprudentzia aztertuz, ikus daiteke Auzitegi Gorenak ez duela ia orientazio edota identitate sexualaren aurkako gorroto delituei buruzko epairik eman. Atal honetan, dena den, Zigor Kodeko 22.4 artikulua bidez nola zigortzen den ulertzeko baliagarriak diren epaiak aztertuko ditut.

Hasteko, aipatzekoa da, duela urtebete baino gutxiago, Auzitegi Gorenak 2020ko maiatzaren 26an emandako 1161/2020 epaia, non delitugilea beste gizon bat haren orientazio sexualagatik erasotu izanagatik zigortua izan zen, Zigor Kodeko 22.4 artikulua aplikatuz.

Kasu horretan Luis Francisco izeneko pertsona bat, homosexuala zena, giro homosexualeko lokal baten atean zegoen gizon bat musukatzen. Bitartean, hiru mutil, horien artean adin txikiko bat eta akusatua, begira zeuden barrezka eta burla egiten. Lau ordu beranduago Luis Franciscok lokaletik alde egin eta hondartzara joan zenean hiru pertsona horiekin topo egin zuen, berriro ere burla egin ziotelarik. Bertatik, tren geltokira joan zen kasu honetako subjektu pasiboa, hondartzan aurkitu zituen hiru pertsonen hura jarraitu zutelarik.

Luis Francisco geltokiko banku batean lo gelditu zen. Akusatua eta adin txikikoak ere, bere atzetik, geltokira sartu ziren, <<(...)con intención de darle un “palo” (...)>>. Berauek biktimaren banku berean eseri eta adingabeak ondorengo esan zion Luis Franciscori: <<(...)te vamos a asaltar (...)>>. Ondoren, prozesatuak harri handi batekin buruan kolpatu zuen Luis Francisco, eta horrek biktima lurrera erortzea eragin zuen. Bertan adin txikikoak eta akusatuak Luis Francisco trenbidetik hartutako harriekin kolpatu zuten. Gainera, erasotzaileetako batek ostiko gogor bat eman zion buruan biktimari. Bitartean, adingabeak Luis Franciscori esan zion harrika hilko zutela haren herrialdean “marikoiekin” egiten zen bezala. Horren ondoren, ondasunak lapurtu zizkioten subjektu pasiboari eta eraso gertatu zen tokitik barrezka alde egin zuten erasotzaileek. Luis Francisco, zegoen bezala egonik, trenbidera erori zen eta zorionez bertatik trena igaro baino bi minutu lehenago bi pertsonen erreskatatu zuten.

Bartzelonako Probintzia Auzitegiaren 2018ko martxoaren 26ko 212/2018 epaian ondorengo zigorrak ezarri zituen: giza hilketa, saiakuntza-graduan, eta indarkeriaz egindako lapurreta, nagusitasun abusu eta Zigor Kodeko 22.4 artikuluko astungarriekin.

Auzitegi horren arabera, seigarren zuzenbide oinarrian azaltzen duen lez, eraso burutzearen arrazoia subjektu pasiboaren orientazio sexuala izan zen, delitugileek berau jipoitzen ari ziren unean adierazi zuten lez. Izan ere, adin txikiko erasotzaileak biktimari esan zion haren herrialdean “marikoiak” hiltzen diren bezala harrika hilko zutela. Baina erasoaren arrazoia hori izan zela ez da bertan bakarrik antzematen. Areal ere, erasotzaileek biktima beste gizon bat musukatzen ikusi zuten, burla egin ziotelarik, baita hondartzan topo egin zutenean ere. Gauzak horrela, homosexuala izateagatik berau “zigortzeko” jarraitu zuten, subjektu pasiboa kaltetu eta umiliatu nahian.

Kataluniako Auzitegi Nagusiak erabaki hori berretsi zuen 2019ko maiatzaren 13ko 62/2019 epaian. Horren arabera, seigarren zuzenbide oinarrian adierazten den bezala, Zigor Kodeko 22.4 artikuluko astungarriak izaera subjektiboa dauka, zeinaren gaitzesgarritasuna erasotzailea delitua burutzeraren daraman arrazoian kokatzen den. Izan ere, pertsona baten bizitzaren kontra egin zen haren orientazio sexualak sortzen zien mespretxua zela eta, berdintasun printzipio eta tratu diskriminatzailearen debekua errespetatu gabe. Hala ere, astungarria aplikatzeko erasotzaileak delitua arrazoi diskriminatzaile horregatik burutu zuela frogatu beharko da Auzitegi Nagusiaren arabera. Kasu honetan gertatu zen bezala, hori izan behar baita delitugilea delitua burutzeraren daraman arrazoi bakarra.

Auzitegi Gorenak, argudiaketa horrekin bat etorritik, azken epai hori berretsi zuen maiatzaren 26ko 1161/2020 epaian, Zigor Kodeko 22.4 artikulua aplikatuz akusatuek eraso biktimaren orientazio sexualagatik burutu izanagatik.

6.1.1. Beharrezkoa al da subjektu pasiboaren egoera pertsonala frogatzea?

Arestian azaldu dudana lez, gorroto delitu bat eman dela baieztatu ahal izateko, delitua burutzearen arrazoia Zigor Kodeko 22.4 edo 510. artikuluetan babestutako egoera pertsonalen baten aurkako diskriminazioa izan beharko da. Hortaz, demagun norbaitek pertsona bat beltza delako hiltzen duela, kasu horretan delitua burutu duenak badaki biktima horrek egoera pertsonal hori duela, hau da, badaki beltza dela. Aldiz, pertsona bat bisexuala edo lesbiana baldin bada eta ez badu bere sexu-joera zein den esan, gainerako pertsonak ez dute zertan izan haren orientazio sexualaren jakitun. Beraz, gerta daiteke norbaitek emakume bat lesbiana delakoan jotzea, baina biktimak sexu-joera hori ez izatea, adibidez. Hori dela eta, orientazio edo identitate sexualaren kontrako gorroto delitue kasuetan, esaterako, Zigor Kodeko 22.4 artikuluko astungarria

aplikatzeko orduan ez dago adostasunik, jurisprudenzia gai honetan eztabaidatsua baita.

Lan honetako hirugarren atalean azaldu dudan bezala, Zigor Kodeko 22.4 artikulua irakurtzean begi-bistan geratzen da astungarriaren izaera subjektiboa, tipo penal hau aplikatu ahal izateko erasotzailearen intentzionalitatea frogatuta geratu beharko delarik. Gauzak horrela, planteatu izan da ea subjektu pasiboak erasoaren arrazoia izan den artikulua babesten duen egoera pertsonaletako bat izan behar duen. Hots, eztabaidan egon da ea, adibidez, artikulua aplikatu ahal izateko biktima transa izan behar den, edo aski den erasotzaileak subjektu pasiboa transa dela pentsatuz hori uste izateagatik erasotu izana (Estatuko Fiskaltza Nagusiaren maiatzaren 14ko 7/219 Zirkularra).

Gai hori nahiko eztabaidatsua da jurisprudenzian (Martín Aragón, 2019: 10). Esaterako, jarraian sakonago azalduko dudan bezala, Espainiako Auzitegi Gorenak uztailaren 17ko 1341/2002 epaian Zigor Kodeko 22.4 artikuluko astungarria aplikatu zuen pertsona bat Sitgesen homosexuala zelakoan iraindu eta jo izanagatik, biktimaren orientazio sexuala frogatu gabe.

Delitu hori 1996. urtean gertatu zen, Sitges-eko kale batean, non pertsona homosexualak joaten ziren establezimenduak zeuden. Kale horretako taberna batetik bi gizon, Eduardo eta Arturo, irten zirenean erasotzaileetako batek, Didac-ek, toki hori "marikoiez" beteta zegoela esan zuen. Hori dela eta, Eduardok galdetu zion ea haien kontrako zerbait zuen, nazka ematen zietela erantzun ziolarik. Momentu horretan Eduardo lurrean zegoen eskuorri bat hartzeko biratu zenean, berau homosexuala zela suposatuz eta haren osotasun fisikoa kaltetzeko asmotan, Eduardori lurrera erortzea eragin zion kolpe gogor bat eman zion bizkarrean erasotzaileetako batek. Jarraian Daniel Juan eta beste erasotzaile batzuk, helburu berdinarekin, gelditu gabe kolpe eta ostikada pila bat eman zizkieten biktimari berau lurrean odol pila bat jariatzen zegoen bitartean. Ondoren, pertsona batzuk biktimari laguntza ematera joan zirenean erasotzaileek ihes egin zuten.

Komunikabideetan oihartzuna izan zuen kasu horrek, eta Bartzelonako Probintzia Auzitegiak, 2000. urteko martxoaren 13an, 75/2000 epaian, lehenengo zigorra ezarri zuen orientazio sexualaren kontrako gorroto delitu kasu batean Zigor Kodeko 22.4 artikulua aplikatuz. Berau 2002ko uztailaren 17an Auzitegi Gorenak, 1341/2002 epaian, berretsi zuen.

Artikulu horren aplikagarritasuna Auzitegi Gorenaren epaiaren bostgarren zuzenbide oinarrian aztertu zen. Lehenik eta behin, artikuluaren funts subjektiboa azpimarratu eta delitu hori burutzearen arrazoia gaitzesgarria zela adierazi zen, pertsonaren duintasun eta berdintasuna zuzenean erasotzen zenez gero, biktimaren orientazio-sexualaren kontrako sekulako mespretxua aditzera emanez. Izan ere, epaian adierazi zen bezala, Didak-en, erasotzaileetako baten, adierazpenek agerian uzten dute zein gutxi errespetatzen zuen homosexualitatea. Halaber, ez dago inolako interferentzia elementurik orientazioa gutxien zuten adierazpenen eta emandako jipoiaren artean, argi geratuz delitua biktima homosexuala zela uste zutelako burutu zela.

Esan bezala, 2002 ko uztailaren 17an Auzitegi Gorenak Bartzelonako Probintzia Auzitegiak emandako epai hori berretsi zuen, Zigor Kodeko 22.4 artikuluko astungarria aplikatuz. Hau da, Auzitegi Gorenaren arabera orientazio-sexualean oinarritutako gorroto delitu bat burutu zela adierazteko ez zen beharrezkoa izan biktimaren sexu-joera frogatzea.

Dena den, jarrera hori ez da baketsua, esaterako, Auzitegi berberak, 2006ko azaroaren 23ko 1145/2006 epaian, seigarren zuzenbide oinarrian, adierazi zuen Zigor Kodeko 22.4 artikulua aplikatu ahal izateko beharrezkoa izango zela ez bakarrik portaera, intentzionalitatea eta akusatuaren parte-hartzea frogatzea, baita biktimaren egoera pertsonala frogatzea ere. Arian ere, Auzitegi Gorenaren arabera, aipatutako astungarriaren inguruabarra erasotzailearen erruduntasun handiagoan oinarritzen da, delitua burutzera bultzatzen duen arrazoiaren gaitzesgarritasuna handiagoa delako, ezinbestekoa izanik motibazio hori delitua egiteko erabakigarria izatea. Hots, horren arabera, biktima homosexuala delakoan orientazio sexual horregatik erasotua izan bada, baina subjektu pasiboa ez bada homosexuala ezin izango da astungarria aplikatu.

Erabaki hori kritikatu izan da doktrinaren aldetik, adibidez, PERAMATO MARTIN-engandik (2013: 218). Haren ustez, eta ni ere bat nator, 2006ko epai horrek hartutako bideak ez du legegilearen helburua betetzen laguntzen. Hau da, ez da Zigor Kodeko 22.4 artikuluko egoera pertsonalen kontrako aurreiritziengatik delitua burutu duena gehiago zigortzea lortzen. Izan ere, astungarriak gerizatzen dituen kolektiboak ekintza diskriminatzaileengandik babestea ez da lortuko erasotzaile bat ez bada zigortzen norbait bat lesbiana zela uste zuelako erasotzeagatik, nahiz eta biktima heterosexuala izan. Badira beste autore batzuk ere PERATAMO MARTÍN eta nire iritzia norabide bera hartzen dutenak, adibidez, LANDA GOROSTIZA (Landa Gorostiza, 2018b: 124).

Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentziari erreparatuz ere, ikus daiteke Konstituzio Auzitegiak 2002an hartutako bide beretik jo zuela Skorjanec eta Kroaziaren arteko auzian. Areak ere, 2017ko martxoaren 28ko 84857/2017 epaian adierazi zuen ez zela beharrezkoa subjektu pasiboa artikulua babesten dituen kolektiboren batekoa izatea, erasotzaileak biktima kolektibo horietakoren batekoa dela uste izateagatik eraso burutu izana nahiko izanik. Hots, okerragatiko diskriminazio kasuak gorroto delituzat hartu zituen. Gaineratu zuen gorroto delitua dela kontsideratuko dela ere baldin eta: erasotua izan den pertsona erasotua izan bada artikuluko egoera pertsonal horiek dituzten edo dituztela dirudien hirugarren batekin egoteagatik, asoziazio bidezko gorroto delitua deritzona burutzeagatik, hain zuzen ere (Estatuko Fiskaltza Nagusiaren maiatzaren 14ko 7/2019 Zirkularra). Fiskaltzak ere, okerragatiko diskriminazioa edo asoziazio bidezko diskriminazioa⁴⁶ ematen den kasuetan Zigor Kodeko 22.4 artikuluko astungarria aplikatuko dela dio.

Beraz, eztabaida honetan agerian geratzen da ez dagoela ziurgabetasun honi irtenbidea emango dion jurisprudentzia finkatu bat. Argitasun horren gabeziak orokorrean gorroto delitu gehiagori eragin diezaikekeen arren, LGBTIfobia kasuei aurre egiteko prozesua are gehiago zailtzen du. Izan ere, pertsona bat beltza delako erasotua izan bada, biktimaren egoera pertsonal hori begi bistaz ikus daiteke, orientazio edo identitate sexualaren kasuan, aldiz, ez. Hori dela eta, eremu honetan adostasuna izateak gorroto delituei aurre egiteko bidea erraz lezake.

6.2. Zigor Kodeko 510. artikuluaen jurisprudentzia laburra

Probintzia Auzitegiak Auzitegi Gorenak baino orientazio eta identitate sexualagatiko gorroto delitu gehiago aztertu izan dituzte. Atal honetan garrantzi handiko Zigor Kodeko 510. artikuluari buruzko bi epai aztertuko ditut, Madrilko Probintzia Auzitegiak ebatziak.

Lehenengo delitua 2017an burutu zen, 18 urteko gazte bat, Leon, bere lagunekin Madrilko kale batetik oinez zihoan bitartean, aurrez bera ezagutzen ez zuten bi mutil, Cipriano eta Anton, beregana hurbildu eta bere hitz egiteko era imitatzen hasi zirenean. Momentu horretan, Leonen orientazio sexuala zela eta, bera gutxietsi, umiliatu, eta

⁴⁶ Okerragatiko diskriminazio edo asoziazio bidezko diskriminazioari buruz gehiago jakitea nahi izatekotan ondorengo dokumentura jo: Peribáñez Blasco, E. (2019). *Violencias “por Odio” y Discriminación Motivadas por SOGIESC (tesis doctoral)*. Universidad de Salamanca.

bere duintasun eta osotasun fisikoa kaltetzeko helburuarekin, eskuarekin kolpe bat eta aurpegian ukabilkada bat eman zion Ciprianok, biktima lurrera eroriz. Altxatzen saiatu zenean Antonek beste ukabilkada bat eman zion aurpegian. Biktimak, eraso ikusi zuten lagunei esker, bertatik alde egitea lortu zuen. Eraso gertatu zen momentuan biktimaren lagunek erasotzaileei ea beraien laguna zergatik jo zuten galdetzean, ondorengoa erantzun zien Ciprianok: <<(..) *Porque es un maricón de mierda y se lo merece (..)*>>. Gainera, beraien lagun “marikoia” lehertuko zutela esan zien.

Kasu honetan, Zigor Kodeko 510.2.a artikulua aplikatu zuen Zigor-Arloko epaitegiak 2017ko martxoaren 22an, baita Madrilgo Probintzia Auzitegiak 2017ko urriaren 30eko 676/2017 epaian ere.

Artikulu hori aplikatzeko zenbait arrazoietan oinarritu zen Madrilgo Probintzia Auzitegia epaiko laugarren zuzenbide oinarrian. Hasteko, Auzitegiaren arabera, erasotzaileek eraso fisikoa burutu baino lehen biktimari barre egin zioten bere hitz egiteko era <<(..) *amanerada (..)* >>-gatik, horretan oinarrituz pentsatu zutelarik Leon homosexuala zela, berau <<*maricón de mierda*>> bezala kalifikatuz eta biktimaren lagunei esanez haien lagun “marikoia” lehertuko zutela. Halaber, lagunek galdetu zitetenean zergatik jotzen zuten Leon, Ciprianok esan zien: <<(..) *Porque es un maricón de mierda y se lo merece (..)*>>. Antonek hori esan ez bazuen ere, Ciprianoren erasoaren segidan Leon jo zuenez, bera ere ezin da arrazoi horretatik aldendu. Izan ere, Ciprianoren portaera Antonek berretsi eta indartu zuen, bien artean Leonen osotasun fisiko, moral eta tratu iraingarria ez jasotzeko eskubidearen kontra eginez.

Beraz, Madrilgo Probintzia Auzitegiak epaileak adierazi zuen sexu-joera izan zela biktima erasotzeko arrazoiak, Zigor Kodeko 510.2.a artikulua aplikatuz. Arealan ere, Anton eta Ciprianok eraso burutu zuten Leonek orientazio-sexual jakin bat zuela ulertu zutenetik aurrera, eraso umiliagarria, iraingarria eta subjektu pasiboaren duintasuna larriki kaltetzen duena izanik. Horren frogak da, polizia munizipalek Leon negarrez eta oso aztoratuta aurkitu zutela, jasandako eraso eta umiliazioagatik.

Horrez gain, arestian aipatutako Auzitegiak Zigor Kodeko 510.2 artikuluari buruzko argibide batzuk eman zituen, jarraian azalduko ditudanak. Batetik, adierazi zuen artikulu horrek duintasunerako eta diskriminatua ez izateko eskubidea babesten duela, arrisku abstraktuko delitu bat zigortzen duena kolektibo oso bati eta bertako partaideei min eman diezaiekena. Bestetik, injustuaren zioa, elementu subjektibo bezala, artikulu

hau aplikatzeko erabakigarria dela argitu zuen, kasu zehatz honetan homofobia izan zena.

Baina artikulua hau internet bidez burututako delituetan ere aplikatu daiteke, lan honen bigarren atalean adierazi dudan bezala. Berau nola ezartzen den ikusteko sare sozialen bidez burututako oihartzuna izan zuen kasu bat aurkeztuko dut jarraian.

“Hispanidad.com” egunkari digitaleko sortzaile eta zuzendariak, Paulinok, YouTube-n <<*Sodomía y pederastia son dos ramas del mismo tronco (...)*>> izeneko bideo bat publikatu zuen 2016an. Bertan, homosexualitatea pederastiarekin parekatu, <<(…) *homosexualidad, es decir, sodomía y pedofilia (...)*>>, eta pertsona homosexualak pederastia kasu gehiengoan, %90a baino gehiagoren, egile zirela esan zuen 2.160 ikustaldi izan zituen bideo batean.

Kasu hori, Madrilgo Probintzia Auzitegiak Zigor Kodeko 510.2.a artikulua aplikatuz zigortu zuen 2017ko abenduaren 29ko 762/2017 epaian. Auzitegiaren arabera, hirugarren zuzenbide oinarrian adierazten duen lez, Paulinok erabili zituen hitzek pertsona homosexualen sekulako izen galtzea eta gutxiespena dakarte, onartezina dena ordenamendu juridiko eta pertsonen duintasunaren errespetu eta askatasunean oinarritutako gizarte batean. Halaber, delitugileak iritzi zientifikoarekin bete-betean talka egiten duen eduki informatzaile neurrigabe eta sostengaezina ematen du aipatutako bideoan, homosexualitatea pedofiliarekin parekatuz, esaterako. Emandako portzentaiak baieztatuz sexu-joera horren eta pedofiliaren artean egindako lotura, pertsona homosexualak umiliatzeko asmoz baino ezin da adierazia izan. Horrek, Auzitegiak laugarren zuzenbide oinarrian argitzen duen bezala, adierazpen askatasunaren muga gainditzen du, giza duintasunaren, berdintasun eta diskriminatua ez izateko oinarrizko eskubidearen aurka eginez.

Gainera, Probintzia Auzitegiak baieztatzen du Paulinok diskurtsoan erabilitako hitzak pertsona homosexualentzako larriki erasotzaileak eta haien duintasunaren aurkakoak direla, diskurtso arrazionala guztiz hautsiz. Beraz, delitugilearen hitzek helburu erasotzailea izan zuela ukatzea sostengaezin eta defendaezina da, bostgarren zuzenbide oinarrian adierazten den lez. Hori guztia dela eta, diskurtsoaren egileak Zigor Kodeko 510.2.a artikuluko portaera burutu zuela ondorioztatu zuen Probintzia Auzitegiak.

Atal honetan ikusi ahal izan da gorroto diskurtsoa ere era ezberdinetan burutua izan daitekeela, kalean edota gero eta gehiago erabiltzen ari diren sare sozialen bidez, esaterako. Baina jurisprudentziaren azterketan agerian geratu den bezala, baieztatu daiteke oinarrizko eskubideen kontra egiten duten orientazio sexualaren kontrako gorroto delituak zigortuak izaten ari direla, identitate sexualaren kontrako buruz, aldiz, ezingo da berdina baieztatu.

Orientazio sexualaren aurkako *hate crime* kasuetan Zigor Kodeko 22.4 eta 510. artikulua aplikatu izan direla ikusi arren, elkarte ezberdinek adierazten duten lez, Arcópoliko zuzenbide sailak, adibidez, eragile juridikoei beldurra eman ohi die Zigor Kodeko 22.4 edo 510. artikulua aplikatzeak, tipo horiek ez dutelarik aplikagarritasun gehiegirik. Horrekin eta pertsona transek bizi duten ikusezintasunarekin amaitzeko irtenbide bat, eragile juridikoei LGBTBI+ arloan formakuntza ematea izan daiteke.

7. Ondorioak

Lan honetan zehar Zigor Kodeak *hate crime* nola arautzen duen ezagutzeko aukera izan dut bertako 22.4., 510. eta 510 bis artikulua aztertuz. Ikusi da era guztietako delituetan aplika daitekeen astungarriak (Díaz López, 2012: 36) bi elementu izan behar dituela: burutu den ekintza delitu penal bat izatea eta aurreiritziak bultzatuta burutu izana (Bayer eta Bárd, 2020: 23; OSCE ODIHR, 2020). Zigor Kodeko 510. artikulua, aldiz, diskriminazioa gertatu baino lehen diskurtsoak izan dezakeen arriskua zigortzen du (Cerezo Mir, 2002: 47). *Hate speech* tipo orokor, arindu, kualifikatu eta bestelako bidez zigortuz, proportzionaltasuna mantentzea lortzen da, berdintasunerako eta diskriminatua ez izateko oinarrizko eskubidea bermatuz (Cerezo Mir, 2002: 65-66). Izan ere, diskurtsoaren atzean pisu historiko itzela dagoenez, gutxietako joera duen gizarteak diskurtso horri sinesgarritasun handiagoa ematen dio, talde minoritarioekiko mespretxua mantentzea eraginez (De Pablo Serrano, 2019: 357).

Bi artikulua horiek komunean duten ezaugarri garrantzitsu bat zera da: zigortzen duten delituek, pertsona bakar bati bideratu arren, biktima parte den kolektibo osoari eragiten diotela, taldearengan zaurgarritasuna sortuz (Balaguer Callejón et al., 2007: 190; Ministerio de Empleo y Seguridad Social, 2017: 21-26). Hori dela eta, zorionez, tipo horietan atxikitutako taldeek Zigor Kodearen babesa jasotzen dute.

Gorroto delituak gutxiespenaren adierazle dira, nahiz eta bakarrak ez izan. Hori dela eta, *hate crime* kasuak bakarrik aztertzeak errealitatearen irudi distortsionatu bat izatea ekarriko lukeenez (Peribañez Blasco, 2019: 14), gorroto gertakariak eta beste diskriminazio mota batzuk daudela ezagutzera ematea beharrezko ikusi dut, batez ere LGTBIfobia kasuetan oinarrituz. Horretarako, erabilgarriak izan dira gorroto gertakariei buruzko Espainiako Barne Arazoetako Ministerioak, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Agentziak eta LGTBI elkarte ezberdinek aurkeztutako txostenak.

Horiei esker, frogatu da orientazio eta identitate sexualaren aurkako *hate crime*-ak burutzen jarraitzen direla. Aurreko paragrafoan aipatutako txostenak aztertuz, adierazgarria iruditu zait proportzioan adinez txikiko gorroto gertakarien biktima gehien dituen taldea LGTBI+ kolektiboa izatea. Gainera, sexu-joera eta -identitatearen kontrako gorroto gertakariak dira ere adingabeko egile kopuru altuenetarikoa dutenak. LGTBIfobia kasuen datuak aztertuz, beraz, agerian geratu da politika kriminala ezin dela Zigor Kodearekin bakarrik egin.

Era horretako gertakari asko burutzen direla dirudien arren, arrazoi ezberdinak direla medio, zifra beltzak altua izaten jarraitzen du, gorroto delitu kasu gehienak ez direlarik salatzen. Hori gertatzeko zioen artean ondorengoak daude: orientazio eta identitate sexuala ezagutzera emateko beldurra; administrazio eta poliziarenganako ikara; eta gizarte matxistaren ondorioz gorroto delituak jasatea normaltzat hartu eta onartzea, emakumeen kasuan areagotzen dena.

Halaber, ez da ahaztu behar, Barne Arazoetako Ministerioak gorroto gertakariei buruzko datuak salaketa formaletatik baino ez dituenek jasotzen, eta LGTBI+ kolektiboak era horretako salaketak aurkezteko beldurra duenez, ez duela errealitatearen ikuspuntu oso bat ematen. Horrek datuen eraginkortasuna murrizten du (FELGTB, 2019: 8; López Ortega, 2016: 143). Aldiz, LGTBI elkarteek, esaterako, datuok beste iturri batzuetatik jasoz, ikuspegi zabalago bat eskaintzen dute. Elkarte horiek egiten duten lana oso garrantzitsua da, arean ere, LGTBIfobia delituen datu bilketa zuzen egitea funtsezkoa da gizartean sortzen duen eraginaz jabetzeko (Ministerio del Interior, 2019: 3).

Lanean zehar, erakutsi da historikoki LGTBI+ kolektiboko pertsonak, batez ere pertsona transek, gizartearen eta ordenamenduaren aldetik jasan duten mespretxua (De Pablo Serrano, 2019: 351-352), urte askoan zehar jazarriak eta diskriminatuak izan baitira. Ukaezina da, pairatutako gutxiespenaren aurka lan egin duten elkarteek

gutxiesteko jarrera hori aldatzeko eta berdintasunera bideratutako eskubideak lortzeko funtsezko papera izan dutela (Martín Aragón, 2019: 14).

Duela gutxira arte hala izan ez bada ere, egun Zigor Kodeak LGTBI+ kolektiboa haren kontrako gorroto delituetatik babesten duela baieztatu daiteke (Balaguer Callejón et al., 2007: 190; Ministerio de Empleo y Seguridad Social, 2017: 21-26). Hala ere, ez da ahaztu behar Zigor Kodeko 22.4 eta 510. artikuluetan identitate sexuala barneratzeko izandako koordinazio falta⁴⁷ dela eta (Landa Gorostiza, 2012: 303) pertsona transek duela gutxira arte Zigor Kodearengandik babesgabezia jasan izan dutela, horrek pertsona transen ikusezintasuna mantendu duelarik. Eta hori arriskutsua da, HONNETH-en arabera (2009), DE PABLO SERRANOK (De Pablo Serrano, 2019: 347) aipatua, errekonozimendu faltak izan ditzakeen ondorioak direla eta arbuio soziala senti dezaketelako. Gainera, adierazgarria iruditu zait nahiz eta Zigor Zuzenbideak, adibidez, pertsona ez binarioak gorroto delituengandik babestu, espainiar estatuak ez duela haien identitatea onartzen.

Jurisprudentzia landuz, berriz, begi-bistan geratu da Zigor Kodeko 22.4 artikulua aplikatzean subjektu aktiboaren intenzionalitatea frogatzeko beharra (AG azaroaren 23ko 1145/2006 epaia). Horrez gain, Kode bereko 510. artikulua eta adierazpen askatasunaren arteko muga zein den ere agerian geratu da, adierazpen iraingarrien bidez talde zehatz baten egoera pertsonala dela eta gutxiesteko asmoa dagoenean garrantzi konstituzionala duen eskubide edo ondasun juridiko bati kalte egitea, hain zuzen ere (KA azaroaren 7ko 235/2007 epaia).

Baina jurisprudentzia aztertuz, hutsune ezberdinak aurkitu ditut. Batetik, "Beharrezkoa al da subjektu pasiboaren egoera pertsonala frogatzea?" atalean adierazi dudana lez, ez dago argi gorroto delituaren biktimak delitu horiek arautzen dituzten artikuluen egoera pertsonalak izan behar dituen edo aski den delitua burutu duenak subjektu pasiboa talde horietakoren batekoa dela pentsatuz eraso burutzearekin. Beraz, ondo legoke eztabaida horri erantzun argi bat ematea.

Bestetik, LGTBI+ kolektiboaren gorroto delituei buruzko jurisprudentzia urria bada ere, Zigor Kodeko 22.4 eta 510. artikuluek orientazio sexuaren aurkako gorroto delitu kasuetan aplikatu direla frogatu dut. Hala ere, ezin izan dut identitate sexualaren aurkako delituetan aplikatzen den ikusi. Hori dela eta, Zigor Zuzenbideak sexu-joeraren kontrako kasuak era egokian babesten dituela esan dezaket. Dena den, Zigor Kodeak

⁴⁷ Hots, Zigor Kodeko 22.4 artikuluko egoera pertsonaletan identitate sexuala 2010. urtera arte ez barneratzea eta kode bereko 510. artikuluko egoeretara, berriz, 2015. urtera arte.

identitate sexualaren kontrako *hate crime*-ak jasaten dituztenak babesten dituen arren, ezin izan dudanez artikuluok kasu horietan aplikatzen diren edo ez ikusi, ezin dezaket baieztatu Zigor Zuzenbideak kasu horiek era egokian babesten dituen. Jurisprudentzia falta horrek, hirugarren atalean azaldu dudanez bezala, haiek jasandako kasuak salatzeak ez duela ezertarako balio pentsatzea ekar lezake, berriro ere haien ikusezintasuna areagotuz. Izan ere, hirugarren atalean ikusi dudanez, pertsona transek haien identitate sexuala dela eta jasaten dituzten gorroto delituak ugariak dira, baina eraso horiek zigortzen dituzten epaiak ez.

Egindako azterketari esker, esan bezala, agerian geratu da ere Zigor Zuzenbideak LGBTBI+ kolektiboa gorroto delituengandik babesteko paper garrantzitsua egin arren, beste eremu batzuetan neurriak hartzea beharrezkoa dela, LGBTBIfobia gertakariak burutzea eragiten duten aurreiritziak ezabatu ahal izateko. Horregatik, neurri horietan gehiago sakontzea gustatuko litzaidake etorkizunean egingo ditudan lanetan. Baina lan honetan behintzat *hate crime*-arekin amaitzen lagundu dezaketen neurri batzuk zerrendatuko ditut:

-Ordenamenduak LGBTBI+ kolektiboko partaide guztiei haien identitatea onartuko duen estatu lege bat onartzea, esaterako, tratamendu hormonal eta psikologo edo medikuen diagnostikoaren beharrik gabe sexuari buruzko erregistro-aipamenaren zuzenketa egiteko aukera eman eta pertsona ez binarioei haien identitatea aintzatetsiko duena. Horri buruzko eztabaida pil-pilean dago gaur egun.

-LGTBI+ elkarteei instituzioen aldetik laguntza ematea, hala nola gorroto gertakariak gizartean egiten duten kalteaz jabetzea lortzen duten txostenak argitaratzen jarraitu (Ministerio del Interior, 2019: 3) eta haien lanaren bidez diskriminazioa atzean uztea lortzeko.

-Eragile juridikoak, estatuko segurtasun-indar eta kidegoak eta gizartea LGBTBI+ kolektiboari buruzko aniztasunean heztea, lanean agerian geratu baita berdintasunean oinarritutako heziketaren beharra.

8. Bibliografia

Aguilar García, M. A., Gómez Martín, V., Marquina Bertrán, M., De Rosa Palacio, M., eta Tamarit, J. M. (2015). *Manual práctico para la investigación y enjuiciamiento de delitos de odio y discriminación*. Generalitat de Catalunya.

- Altman, D., Aggleton, P., Williams, M., Kong, T., Reddy, V., Harrad, D., Reis, T., eta Parker, R. (2012). Men who have sex with men: Stigma and discrimination. *The Lancet*, 380, 439–445.
- ARELAS. (2021). ARELAS, Asociación de familias de menores Trans. <http://asociacionarelas.org/>
- Armstrong, E. A., eta Crage, S. M. (2006). Movements and Memory: The Making of the Stonewall Myth. *American Sociological Review*, 71, 724–751.
- Balaguer Callejón, F., Cámara Villar, G., López Aguilar, J. F., Balaguer Callejón, M. L., eta Montilla Martos, J. A. (2007). *Manual de derecho constitucional*. Tecnos.
- Basic Rights Oregon. (2017). *Oregon Becomes First U.S. State to Offer Third Gender Marker on State IDs*.
- Bayer, J., eta Bárd, P. (2020). Hate speech and hate crime in the EU and the evaluation of online content regulation approaches. In *Policy Department for Citizens' Rights and Constitutional Affairs*. European Union.
- Berasaluce, I. (2019). 40 años del asesinato de 'Francis', el travesti cuya muerte impulsó el movimiento LGTB en Euskadi. *Público*.
- Bernal del Castillo, J. (1998). *La discriminación en el derecho penal*. Comares.
- Campos Marín, R. (2016). La construcción psiquiátrica del sujeto peligroso y la Ley de Vagos y Maleantes en la España franquista (1939-1970). *Revista Culturas*, 9–44.
- Carratalá, A., eta Herrero-Jiménez, B. (2019). La regulación contra el discurso de odio hacia el colectivo LGTBI en los medios: análisis comparado de diez leyes autonómicas. *Revista de La Asociación Española de Investigación de La Comunicación*, 6, 58–80.
- Carrillo-Linares, A. (2006). Movimiento estudiantil antifranquista, cultura política y transición política a la democracia. *Revista de Historia Contemporanea*, 5, 149–170.
- Carter, D. (2004). *Stonewall: the riots that sparked the gay revolution*. St. Martin's.
- Cerezo Mir, J. (2002). Los delitos de peligro abstracto en el ámbito del Derecho penal del riesgo. *Revista de Derecho Penal y Criminología*, 10(10), 47–72.
- Chrysalis. (2021). *Chrysalis. Asociación de Familias de Menores Trans*.
- COGAM. (2021). COGAM. <https://cogam.es/>
- De La Iglesia Monje, M. I. (2008). La transexualidad y el cambio de la mención de sexo y de nombre (STS de 17 de septiembre de 2007). *Revista Crítica de Derecho Inmobiliario*, 84, 367–375.
- De Pablo Serrano, A. L. (2019). "El 'reconocimiento' como fundamento filosófico para la sanción penal y administrativa del discurso del odio contra el colectivo LGTBI." *Políticas públicas en defensa de la inclusión, la diversidad y el género* (pp. 344–

- 360). Universidad de Salamanca.
- Díaz López, J. A. (2012). *El odio discriminatorio como circunstancia agravante de la responsabilidad penal (tesis doctoral)*. Universidad autónoma de Madrid, Facultad de Derecho.
- ECRI. (2016). *Recomendación de Política General nº 15 relativa a la lucha contra el discurso del odio y Memorandum explicativo*. 69.
- EHGAM. (2014). *Giza Eskubide eta Bake Hezkuntzaren Elkarteen foroa*. EHGAM, Movimiento de Liberación Gay-Les de Euskal-Herria.
- Enguix Grau, B. (2009). Espacios y Disidencias: el Orgullo LGTB. *Quaderns-e de l'Institut Català d'Antropologia*.
- Enguix Grau, B. (2016). Activismo y Prácticas Digitales en la Construcción de una Esfera LGTB en España. *Dados*, 59(3), 755–787.
- Enguix Grau, B. (2017). Protesta, mercado e identidad en las celebraciones del Orgullo LGTB en España. *Convergencia Revista de Ciencias Sociales*, 73, 165–186.
- FELGTB. (2013). *Estudio 2013 sobre la discriminación por orientación sexual y/o identidad de género en España*.
- FELGTB. (2018). *La cara oculta de la violencia hacia el colectivo LGTBI*.
- FELGTB. (2019). *Informe 2019 Delitos de Odio*.
- FELGTB. (2021). *FELGTB*. <https://felgtb.org/>
- FRA. (2014). *European Union lesbian, gay, bisexual and transgender survey*.
- FRA. (2015). *The fundamental rights situation of intersex people*.
- FRA. (2020). *A long way to go for LGBTBI equality*.
- Fundéu RAE. (2017). *Trans, acortamiento válido de transexual y transgénero*. <https://www.fundeu.es/recomendacion/trans-transexual-transgenero/>
- Gascón Cuenca, A. (2015). La nueva regulación del discurso del odio en el ordenamiento jurídico español: la modificación del artículo 510 CP. *Cuadernos Electrónicos de Filosofía Del Derecho*, 0(32), 73–92.
- González Ibañez, J. (1988). El delito de escándalo público desaparece del Código Penal. *El País*.
- Guerrero-Fernández, J., Barreda-Bonis, A. C., eta González-Casado, I. (2015). Pros y contras de los tratamientos hormonales desde el punto de vista de la endocrinología pediátrica. *Revista Española Endocrinología Pediátrica*, 6, 45–51.
- Hall, N. (2013). *Hate crime*. Routledge.
- Hernández Martín, R. (2009). El sida ante la opinión pública: el papel de la prensa y las campañas de prevención estatales en la representación social del sida en España. *Revista de Humanidades*, 15, 237–268.
- Honneth, A. (1997). *La lucha por el reconocimiento. Por una gramática moral de los*

- conflictos sociales. Crítica.*
- Jacobs, J. B., eta Potter, K. (1998). *Hate crimes: Criminal law & Identity politics*. Oxford University Press on Demand.
- Jurčić, M., Langarita Adiego, J. A., Vallvé, X., eta Sadurní Balcells, N. (2018). *Trabajar con víctimas de delitos de odio anti-LGTB. Manual práctico*. Universitat de Girona.
- LAMBDA. (2019). LAMBDA. Historia. <https://lambdavalencia.org/es/queteofrecemos/orgullo/historia/#:~:text=La%20primera%20manifestaci%C3%B3n%20del%20Orgullo,encabezadas%20principalmente%20por%20mujeres%20transexuales>.
- Landa Gorostiza, J. M. (1999). *“La intervención penal frente a la xenofobia. Problemática general con especial referencia al “delito de provocación” del artículo 510 del código penal” (tesis doctoral)*. Universidad del País Vasco.
- Landa Gorostiza, J. M. (2012). Incitación al odio: evolución jurisprudencial (1995-2011) del art. 510 CP y propuesta de Lege Lata. *Revista de Derecho Penal y Criminología*, 7, 297–346.
- Landa Gorostiza, J. M. (2018a). El mapa de odio en el País Vasco. *Indret: Revista Para El Análisis Del Derecho*, 4, 152-180.
- Landa Gorostiza, J. M. (2018b). *Los delitos de odio*. Tirant lo Blanch.
- Laurenzo Copello, P. (1996). La discriminación en el Código penal de 1995. *Estudios Penales y Criminológicos*, 19, 219-288.
- López Ortega, A. I. (2016). Análisis y evolución de los delitos de odio en España (2011-2015). *Antropología Experimental*, 17, 139–158.
- Martín Aragón, M. del M. (2019). Incidentes LGTBIQ-fóbicos en España: Más allá de los delitos de odio. *Revista Electrónica de Estudios Penales y de La Seguridad*, 6, 1–17.
- Ministerio de Empleo y Seguridad Social. (2017). *Legislación sobre los Delitos de odio (Guía Práctica)*.
- Ministerio de Sanidad de España. (2019). *Mortalidad por VIH y SIDA en España. Evolución 1981-2015*.
- Ministerio del Interior. (2015). *Informe sobre incidentes relacionados con los delitos de odio en España*.
- Ministerio del Interior. (2016). *Informe sobre la evolución de los incidentes relacionados con los delitos de odio en España*.
- Ministerio del Interior. (2017). *Informe sobre la evolución de los incidentes relacionados con los delitos de odio en España*.
- Ministerio del Interior. (2018). *Informe sobre la evolución de los delitos de odio en España*.

- Ministerio del Interior. (2019). *Informe de la evolución de los delitos de odio en España*.
- Mir Puig, S. (2011). *Derecho Penal. Parte General*. Reppertor.
- Monferrer Tomás, J. M. (2003). La construcción de la protesta en el movimiento gay español: la Ley de Peligrosidad Social (1970) como factor precipitante de la acción colectiva. *Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, 102, 171–204.
- Moreno Fernández, A. (2018). *La práctica de la Terapia Sistémica*. Desclée de Brouwer.
- Movimiento contra la Intolerancia. (2010). *Informe Raxen. Racismo, Xenofobia, Antisemitismo, Islamofobia, Neofascismo y otras manifestaciones de Intolerancia a través de los hechos*.
- Muñoz Conde, F. (2002). *Derecho Penal. Parte Especial*. Tirant lo Blanch.
- Naizen. (2021). *Naizen. Asociación de Familias de Menores Trans*. <https://naizen.eus/>
- Observatorio Madrileño Contra la Homofobia Transfobia y Bifobia. (2017). *Informe de Incidentes de Odio por LGTBfobia en la Comunidad de Madrid*.
- Observatorio Madrileño Contra la Homofobia Transfobia y Bifobia. (2018). *Informe de incidentes de odio motivados por LGTBfobia en la Comunidad de Madrid*.
- Observatorio Madrileño Contra la Homofobia Transfobia y Bifobia. (2019). *Informe de incidentes de odio motivados por LGTBfobia*.
- Organización Mundial de la Salud. (2018). *Organización Mundial de la Salud. Género y Salud*. <https://www.who.int/es/news-room/fact-sheets/detail/gender>
- OSCE ODIHR. (2009). *Preventing and responding to hate crimes: a resource guide for NGOs in the OSCE region*.
- OSCE ODIHR. (2020). *What is hate crime*. <https://hatecrime.osce.org/what-hate-crime>
- Palomares García, J. R., eta Rozo Ladino, C. A. (2019). El registro civil de las personas y el modelo no binario. *Ius et Praxis*, 25(3), 113–144.
- Paz Galupo, M. P., Henise, S. B., eta Davis, K. S. (2014). Transgender Microaggressions in the Context of Friendship: Patterns of Experience Across Friends' Sexual Orientation and Gender Identity. *Psychology of Sexual Orientation and Gender Diversity*, 1(4), 461–470.
- Peramato Martín, T. (2013). *Desigualdad por razón de orientación sexual e identidad de género, homofobia y transfobia*. Aranzadi.
- Pérez Luño, A. E. (2004). *Los derechos fundamentales*. Tecnos.
- Peribañez Blasco, E. (2019). *Violencias “por Odio” y Discriminación Motivadas por SOGIESC (tesis doctoral)*. Universidad de Salamanca.
- Perry, B. (2001). *In the name of hate: Understanding hate crimes*. Routledge.
- Petit, J. (2003). *25 años más: una perspectiva sobre el pasado, presente y futuro del movimiento de gays, lesbianas, bisexuales y transexuales*. Icaria Editorial.
- Quilez Lázaro, C. (2016). 25 años del asesinato de Sonia. *El Español*.

- Real Academia Española: *Diccionario de la lengua española*. (2014a). 23.^a ed.
<http://dle.rae.es/dictadura>
- Real Academia Española: *Diccionario de la lengua española*. (2014b). 3.^a ed.
<http://dle.rae.es/fomentar>
- Real Accademia Española: *Diccionario de la lengua española*. (2014c). 3.^a ed.
<http://dle.rae.es/incitar>
- Richards, C., Bouman, W. P., Seal, L., Barker, M. J., Nieder, T. O., eta Tsjoen, G. (2016). Non-binary or genderqueer genders. *International Review of Psychiatry*, 28(1), 95–102.
- Rodríguez Ferrández, S. (2014). El ámbito de aplicación del actual artículo 510 CP en retrospectiva y en prospectiva tras la reforma penal de 2015. *Revista de Derecho Penal y Criminología*, 12, 165–232.
- Suárez Espino, M. (2008). Comentario a la sentencia 235/2007 por la que se declara la inconstitucionalidad del delito de negación de genocidio. *Indret: Revista Para El Análisis Del Derecho*, 2, 524.
- Terradillos Basoco, J. M. T. (2020). Homofobia y ley penal: la homosexualidad como paradigma de peligrosidad social en el Derecho penal Español (1933-1995). *Revista de Estudios Jurídicos y Criminológicos*, 1, 63-102.
- The Council of the European Communities. (1994). Appendix to RECOMMENDATION No. R (97) 20 of the Committee of Ministers To Member States. *Council of Europe*, 91, 1–6.
- Vallejo, C. (2018a). *Nosotrxs somos. Amarillo. Peligrosos y enfermos*.
<https://www.rtve.es/playz/videos/nosotrxs-somos/nosotrxs-somos-capitulo-1-amarillo-enfermos-peligrosos/4654077/>
- Vallejo, C. (2018b). *Nosotrxs somos. Azul. Un país más decente*.
<https://www.rtve.es/playz/videos/nosotrxs-somos/nosotrxs-somos-capitulo-4-azul-pais-mas-decente/5273841/>
- Vallejo, C. (2018c). *Nosotrxs somos. Rojo. El revés imprevisto*.
<https://www.rtve.es/playz/videos/nosotrxs-somos/nosotrxs-somos-capitulo-3-rojo-reves-imprevisto/4864547/>
- Vallejo, C. (2018d). *Nosotrxs somos. Verde. El camino a la igualdad*.
<https://www.rtve.es/playz/videos/nosotrxs-somos/nosotrxs-somos-capitulo-2-verde-camino-igualdad/4796118/>
- Vallejo, C. (2019). *Nosotrxs somos. Naranja. Cuerpos diversos, derechos iguales*.
<https://www.rtve.es/playz/videos/nosotrxs-somos/nosotrxs-somos-capitulo-5-naranja-cuerpos-diversos-derechos-iguales/5285835/>
- Vallejo, C. (2020). *Nosotrxs somos. Violeta. La revolución lesbiana*.

<https://www.rtve.es/playz/videos/nosotrxs-somos/nosotrxs-somos-capitulo-6-violeta-revolucion-lesbiana/5304746/>

Vallès Muñío, D. (2017). La privación de libertad de los homosexuales en el franquismo y su asimilación al alta en la seguridad social. *IUSLabor*, 1, 1–13.

Ysàs, P. (2008). El movimiento obrero durante el franquismo. De la resistencia a la movilización (1940-1975). *Cuadernos de Historia Contemporánea*, 30, 165–184.

9. Legeria, epaiak eta bestelakoak

Legeria:

Espainia. 1/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, honako lege organiko hau aldatzen duena: 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodeari buruzkoa.

Espainia. 2/2008 Legea, abenduaren 23koa, 2009rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

Espainia. 3/2007 Legea, martxoaren 15ekoa, pertsonen sexuari buruzko erregistro- aipamenaren zuzenketa arautzen duena.

Espainia. 5/2010 Lege Organikoa, ekainaren 22koa, honako lege organiko hau aldatzen duena: 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodeari buruzkoa.

Espainia. 8/1983 Legea, ekainaren 25ekoa, Zigor Kodearen erreforma partzial eta berehalakoa.

Espainia. 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodeari buruzkoa.

Espainia. 13/2005 Legea, uztailaren 1ekoa, Kode Zibilea aldaraztekoa, ezkontzeko eskubidearen arloan.

Espainia. 16/1970 Legea, abuztuaren 4koa, Arriskutasunari eta Birgaitzeari buruzkoa.

Espainia. 46/1977 Legea, urriaren 15ekoa, Amnistiari buruzkoa.

Espainia. 77/1978 Legea, abenduaren 26koa, Arriskutasunari eta Birgaitzeari buruzko Legea eta haren Erregelamendua aldatzen dituena.

Espainia. 1954ko uztailaren 15eko Alfer eta Gaizkileei buruzko Legea, 1933ko abuztuaren 4ko 2. eta 6. artikulua aldatzen dituena.

Espainiar Konstituzioa. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1978ko azaroaren 29koa.

Euskal Herria. 14/2012 Legea, ekainaren 28koa, pertsona transexualen eskubideen aintzatesen eta genero identitate arrazoiengatik ez diskriminatzeari buruzkoa.

Katalunia. 11/2014 Legea, urriaren 10ekoa, lesbiana, gay, bisexual, transgenero eta intersexualen eskubideak bermatzeari eta homofobia, bifobia eta transfobiarekin

amaitzeari buruzkoa.

Nafarroa. 8/2017 Lege Forala, ekainaren 19koa, LGBTBI+ pertsonen berdintasuna lortzeari buruzkoa

Epaiak:

Auzitegi Gorenaren 1987ko uztailaren 2ko 4665/1987 epaia.

Auzitegi Gorenaren 2002ko uztailaren 17ko 1341/2002 epaia.

Auzitegi Gorenaren 2006ko azaroaren 23ko 1145/2006 epaia.

Auzitegi Gorenaren 2020ko maiatzaren 26ko 1161/2020 epaia.

Bartzelonako Probintzia Auzitegiaren 2000. urteko martxoaren 13ko 75/2000 epaia.

Bartzelonako Probintzia Auzitegiaren 2018ko martxoaren 26ko 212/2018 epaia.

Europako Parlamentuaren 1989ko irailaren 12ko epaia.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren 2017ko martxoaren 28ko 85857/2017 epaia

Kataluniako Auzitegi Nagusiaren 2019ko maiatzaren 13ko 62/2019 epaia.

Konstituzio Auzitegiaren 2007ko azaroan 7ko 235/2007 epaia.

Madrilgo Probintzia Auzitegiaren 2017ko abenduaren 29ko 762/2017 epaia.

Madrilgo Probintzia Auzitegiaren 2017ko urriaren 30eko 676/2017 epaia.

Bestelakoak:

Espania. Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 7/2019 Zirkularra, maiatzaren 14koa, Zigor Kodeko 510. Artikuluan tipifikatutako gorroto delituak interpretatzeko jarraibideei buruzkoa.

Europar Batasuna. ECRI-ren 15. gomendioa, gorroto diskurtsoaren kontrako borrokari buruzkoa, eta memorandum argitzailea.

Europar Batasuna. Europako Kontseiluaren hitzarmena, 2011ko maiatzaren 11koa, emakumearen aurkako eta etxeko indarkeriari aurrea hartzeko eta haien aurka borrokatzeko.

Europar Batasuna. Kontseiluaren 2008/913/JAI Esparru Erabakia, 2008ko azaroaren 28koa, Zuzenbide Penalaren bidez arrazakeriaren eta xenofobiaren modu eta adierazpen jakin batzuen aurka borrokatzeari buruzkoa.